

Sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena kirolean

Argitalpen zientifikoak aztertzearen ondoriozko txosten teknikoa

Egileak

Andrea Sáenz Olmedo, Aitor Iturricastillo Urteaga, Oidui Usabiaga Arruabarrena, Juan Aldaz Arregui, Aduna Badiola Lekue, Ruth Cayero Alcorta, Uxue Fernandez Lasa, Maite Fuentes Azpiroz, Cristina Granados Dominguez, Nagore Martinez Merino, Estibaliz Romaratezabala Aldasoro, Javier Yanci Irigoyen.

KOORDINATZAILEAK

Andrea Sáenz Olmedo

Aitor Iturricastillo Urteaga

Oidui Usabiaga Arruabarrena

EGILEAK

Andrea Sáenz Olmedo

Aitor Iturricastillo Urteaga

Oidui Usabiaga Arruabarrena

Juan Aldaz Arregui

Aduna Badiola Lekue

Ruth Cayero Alcorta

Uxue Fernandez Lasa

Maite Fuentes Azpiroz

Cristina Granados Domínguez

Nagore Martinez Merino

Estibaliz Romaratezabala Aldasoro

Javier Yanci Irigoyen



Juan Aldaz Arregui

Soziologian doktore eta lizentziaduna UPV/EHU, eta Programa eta Politika Publikoen Ebaluazioko Masterra MUKen. Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle agregatua Kriminologiako Graduan. Kriminologiaren Euskal Institutuko (IVAC-KREI) GICCAS (Krimen Zientzietako Ikerketa Taldea) Ikerketa Talde Kontsolidatuko kidea eta LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

Aduna Badiola Lekue

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle agregatua. GIKAFIT (Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea) Ikerkuntza Taldeko kidea. UPV/EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren koordinatzailea.

Ruth Cayero Alcorta

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakaslea.

Uxue Fernandez Lasa

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

Maite Fuentes Azpiroz

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakaslea.

Cristina Granados Dominguez

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle titularra. GIKAFIT (Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea) Ikerkuntza Taldeko kidea. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Kirola atala) Nazioarteko Harremanen Bulegoko dekanordea. EN3S sareko (European Network for Studies in Sport Sciences) kidea.

Aitor Iturricastillo Urteaga

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea.

Nagore Martinez Merino

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Bilboko Hezkuntza Fakultateko (Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

Estibaliz Romaratezabala Aldasoro

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle agregatua. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea.

Andrea Sáenz Olmedo

Lehen Hezkuntzako graduduna gorputz-hezkuntzaren aipamenarekin. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Masterra prestakuntza eta Kirol Entrenamenduetako aipamenarekin. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako doktoregaia Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Igeriketako entrenatzaile laguntzailea Espainiako Igeriketa Federazioan. Peritu judicial aditua jazarpenean, bullyingean eta ziberbullyingean Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarrean.

Oidui Usabiaga Arruabarrena

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle agregatua. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. Ekintza Motorraren Behaketa Laborategiaren (EMBL) koordinatzailea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

Javier Yanci Irigoyen

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle titularra. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. Portaera Motorreko Laborategiaren (PML) koordinatzailea. Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Unibertsitate Masterraren arduraduna.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	13
1.1. Azterlanaren xedea: mitoak gezurtatzea	
1.2. Ikerketa-galderak	
1.3. Azterketaren metodologia	
1.4. Kapitulu bakoitzaren egitura	
1.5. Erreferentziak	
2. GLOSARIOA	19
2.1. Gako-hitzak	
2.2. Jazarpenaren adierazpenak	
2.3. Erreferentziak	
3. KIROLEKO SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAREN ZIOZKO JAZARPENAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	27
3.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak	
3.2. Motak eta ezaugarriak	
3.3. Jazarle motak	
3.4. Arrisku-faktoreak eta kausak	
3.5. Metodoak, prestaketa-prozesua (grooming) eta jazarpen-lekuak	
3.6. Kirol motarekin duen lotura	
3.7. Erreferentziak	
4. ENTRENATZAILEAREN ETA KIROLARIAREN ARTEKO HARREMANAK	45
4.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak	
4.2. Boterea, entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanaren abiapuntua	
4.3. Sexu-jazarpena eta entrenatzailearen lidergo mota	
4.4. Entrenatzailearen portaera onargarria eta onartezina	
4.5. Erreferentziak	
5. SEXU-JAZARPENAREN ONDORIOAK KIROL-JARDUERAN	61
5.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak	
5.2. Sexu-jazarpenak edo sexuaren ziozko jazarpenak eragindako inpaktu edo ondorio motak	
5.3. Erreferentziak	
6. KIROL-ERAKUNDEETAN ERABILTZEN DIREN NEURRIAK SEXU-ABUSUA PREBENITZEKO	69
6.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak	
6.2. Kirol segurua	
6.3. Babes-politikak	
6.4. Arriskuak murriztea kirol-erakundeek erabiltzen dituzten prebentzio-politiken bidez	
6.5. Kirol-kluben konpromisoa kirolariak babesteko	
6.6. Erreferentziak	
7. EPILOGOA	85
7.1. Ondorio nagusiak	
7.2. Gomendioak	
7.3. Aztertutako lanen mugak eta gabeziak	
7.4. Erreferentziak	

1.- SARRERA

1. SARRERA

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) kiroleko jazarpenari eta abusuari (nahitako indarkeria) buruzko adostasun-adierazpen bat argitaratu du berriki (Mountjoy et al., 2016). Bertan, adierazi zuten kirol segurua sustatzea premiazko zeregina dela, kirolean ohikoa delako atletek tratatu txarrak pairatzea. Kirolariak pairatzen dituzten tratatu txarrena arazo orokortua dela gehienek onartu arren, erabat ezezaguna da kirolean jazarpena jasaten duten pertsonen gertatzen zaiena. Kirolean sexu-jazarpena egoteari buruz Espainian egin diren sentsibilizazio-jarduketak gutxiak azken hamarkadan egin dira, baina sexu-jazarpena oraindik ez da asko aztertu estatu barruan eta nazioartean (Bjørnseth y Szabo, 2018; Ohlert et al. 2020). Ba al da inor kirol-eremuko sexu-jazarpenari edo -abusuari buruzko berriak azkenaldian ezagutu ez duenik? Zoritxarrez, denok irakurri ahal izan ditugu albiste horiek prentsaren bidez. Hona hemen albiste horietako batzuk: *Última Hora* berrietan, 2021eko urriaren 3an argitaratutakoaren arabera, La Palmako Teknikazio Zentroko bi entrenatzaile ikertzen ari dira 17 urteko kirolari bati eragindako ustezko sexu-jazarpenarengatik eta tratatu txar psikologikoengatik¹.

Era berean, *la Sexta*, 2021eko urriaren 5eko albiste baten arabera, 24 jokalarik beren entrenatzaile ohia salatu zuten 2013tik 2017ra bitarte sexu-abusu eta -jazarpen, fisiko eta psikologikoa egiteagatik². Are berriagoa da *Marcak* 2022ko otsailaren 21ean argitaratu zuena; bi kirolari adingabeak zirenean entrenatzailearengandik pairatutako abusuaren testigantza lazarria kontatu zuten³. Ildo beretik, Australian, Kanadan, Danimarkan, Estatu Batuetan, Finlandian, Norvegian eta Erresuma Batuan egindako ikerketek (Horcajo y Pujol, 2014) erakusten dute kirol-arloan badagoela sexu-jazarpena. Alde horretatik, txosten honen bidez, kirolean gertatzen den sexu-jazarpenari eta sexuaren ziozko jazarpenari buruzko literatura zientifiko eguneratua bildu nahi da.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak (txosten tekniko hau eskatu duen erakunde publikoa) eskatuta, zehazki, kirola

¹ <https://www.ultimahora.es/sucesos/ultimas/2021/10/03/1305971/acoso-sexual-palma-investigacion-dos-entrenadores-del-centro-tecnificacion-deportiva.html>

² https://www.lasexta.com/noticias/deportes/futbol/24-jugadoras-denuncian-exentrenador-abuso-acoso-sexual-fisico-psicologico_20211006615d46be3ac97500015186ac.html

³ <https://www.marca.com/primer-plana/2022/02/21/621387a2ca47411d718b458a.html>

egiten duten ikasleek pairatutako sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena izango ditu ardatz azterketak. Alde horretatik, azpimarratu behar da ez dela kontuan hartu genero-bitartasun horri erantzuten ez dioten ikasleekin lotutako literatura.

1.1. Azterlanaren xedea: mitoak gezurtatzea

Literaturaren azterketa honetan, helburu espezifiko hauek hartu ditugu abiapuntutzat:

- ✓ Kirol-eremuko sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren ezaugarriei buruzko literatura zientifikoa aztertzea, haur eta gazteen etapa azpimarratuz (6-16 urte).
- ✓ Entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremana ikertzea, kirol-testuinguruetakoa sexu-jazarpenari eta sexuaren ziozko jazarpenari dagokionez.
- ✓ Sexu-jazarpenak eta sexuaren ziozko jazarpenak kirol-jardueran dituen ondorioei buruzko azterlanak biltzea.
- ✓ Kiroleko eskola-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena prebenitzeko estrategiak aztertzea.

Helburu horiei erantzun behar zaie, kiroleko sexu-jazarpenari buruzko mito asko entzuten direlako egunero-egunero. Hona hemen mito horietako batzuk:

- ✓ «Nire kirolean ez da sexu-jazarpenik eta sexu-abusurik gertatzen»

Fastingek azterketa bat egin zuen (2004) 56 diziplina desberdinetako 15 urtetik 39 urtera bitarteko 660 atleta norvegiarrekin, kirol kolektiboak eta indibidualak kontuan hartuta. Alemaniako kirol antolatuan gertatzen diren sexu-abusuen kasuen azterketa (Ohlert et al. (2018)). Bietan agerian geratzen da jazarpena eta abusua kirol guztietan gertatzen direla eta sexu-jazarpenaren arriskua kirol batzuetan beste batzuetan baino handiagoa delako usteek estereotipo faltsuetara ez ezik, kiroleko jazarpenaren aurka okerreko politikak ezartzera ere daramate.

- ✓ «Sexu-jazarpena eta -abusua kirol batzuetan bakarrik gertatzen dira»

Hainbat azterlanek (esaterako, Parent et al. (2016)) erakusten dute jazarpena eta abusua kirol mota guztietan eta munduko leku guztietan gertatzen direla. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak kiroleko sexu-jazarpenari eta -abusuari buruz 2007an egin zuen eta 2016an zabaldu zen adostasun-adierazpenak kirolean pairatzen den mota horretako jazarpenaren ebidentziak batzuk erakusten ditu, baita ebidentzia psikologiko edo fisiko

batzuk ere (Mountjoy et al., 2016). Era berean, adierazten du adin eta kirol guztiek eta mota guztietako atletak izan dezaketela arazo hori.

- ✓ «Inoiz ez badugu sexu-jazarpenean eta -abusuan oinarritutako salaketarik izan, gure auzia ez delako da»

Jazarpenean eta abusuan oinarritutako salaketarik ez izateak ez du esan nahi ez direnik gertatu; izan ere, Kirbyk eta kideek (2000) honako hau adierazten dute: «ez bada jazarpenearen aurkako politika eraginkorrik ezartzen, litekeena da tratu txarrak ez salatzea eta kasu horiek ikertzeko aukera gutxiago izatea».

- ✓ «Haurren sexu-abusua ez da maiz gertatzen, albisteetan agertzen diren kasuak baino ez dira»

Estatistiken arabera, bost haur eta nerabetik batek sexu-indarkeria pairatu du 18 urte bete aurretik (Consejo Superior de Deportes, 2019).

- ✓ «Antza denez, kirolean haurren sexu-abusu gutxiago dago, bestela, haurren eta nerabeen errendimenduan sumatuko genuke»

Sexu-abusuak errendimenduan ondorio berehalakoak dituen arren zenbaitetan, kirolaren kulturaren oso barneratuta dago mina jasaten jakiteak kirolari hobea egin zaituelako ideiak, eta, ondorioz, haur eta nerabe asko gai dira abusuarekin luzaroan bizitzeko, ageriko ondorioz erakutsi gabe (beti daude zeharkako ondorioak, baina zailagoa da horiek identifikatzea) (Consejo Superior de Deportes, 2019).

- ✓ «Haurren sexu-abusuak hain seinale nabariak uzten ditu, ezen edozeinek identifikatu baititzake berehala»

Oso ageriko ondorio batzuetan izan ezik (nahi ez diren haurdunaldiak edo sexu-transmisiozko gaixotasunak), haurrak edo nerabeak abusua gorde edo ezkuta dezake lotsagatik, erruagatik edo errepresalien beldurragatik (Consejo Superior de Deportes, 2019)

Kirola egitea mesedegarria bada ere, ebidentziek adierazten dute jazarpenean eta abusuan kirol eta maila guztietan gertatzen direla (Fasting, Brackenridge, y Sundgot-Borgen, 2004). Hori larriagotu egin daiteke kirol-erakundeetan prebentzio-politikarik eta -prozedurarik ez izateagatik (Fasting et al., 2004). Horregatik, nabarmendu behar da kirola egiten duten

guztiek, jardunbide egokien bidez eta babes-politikak ezarriz eta horiei atxikiz, kirol segurua lortzeko erantzukizuna partekatzen dutela (Mountjoy et al., 2016).

1.2. Ikerketa-galderak

Txosten hau osatzen duten ikerketa-galderak eguneroko bizitzan eta eskola-kirolaren kudeaketan dauden faktoreetan oinarritzen dira. Beraz, honako galdera hauek erabili dira oinarri gisa:

Zenbateraino daude sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren kasuak kirol-eremuan?

Zer motatako sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena daude kirol-eremuan?
Nola gertatzen dira, nork egiten ditu eta non gertatzen dira egoera horiek?

Nola eragiten du kirol motak eta kirol-espezializazioaren mailak sexu-jazarpenean?

Nolakoak dira entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak eta zer lotura dute kiroleko sexu-jazarpenarekin eta sexuaren ziozko jazarpenarekin?

Zer lotura dago entrenatzailearen lidergo-estiloaren eta sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren artean?

Zeintzuk dira kirol-eremuko sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren ondorioak?

Zer neurri har daitezke erakunde publiko eta pribatuetan kirol-eremuko sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena prebenitzeko?

1.3. Azterketaren metodologia

Txosten hau argitalpen zientifikoan, liburuen, giden eta beste dokumentu batzuen azterketa da. Argitalpen zientifikoak eta dokumentuak bilatzeko estrategia izan da datu-base batzuk kontsultatzea (PubMed, sCielo, Science Research, Google Akademikoa, Scopus eta Dialnet), aldez aurretik egindako ikerketa-galderetatik ateratako gako-hitz hauek erabilia: sexu-jazarpena, sexu-abusua, kirola, kirol-hastapena, eskola-kirola, ondorioak, jazarlea, prebentzioa, prebentzio-neurriak, indarkeriak, arrisku-faktoreak, jazarpen-lekuak, groominga, jarduketa-eremuak, portaera onartezinak, lidergoa, jazarpenaren eragina eta abar. Aztertutako edukia ikerketa-galdera bakoitzean lantzen diren alderdien arabera antolatu dugu. Literaturaren bilaketa bibliografiko osagarria egin dugu, aipatutako datu-baseetan bilaketaren bidez aurkitu ez diren artikuluak aurkitzeko asmoz. Gainera, prebentzioarekin lotutako kiroleko sexu-jazarpenari eta -abusuari buruzko hainbat gidatako informazioa lortzen saiatu gara.

1.4. Kapitulu bakoitzaren egitura

Zehazki, azterketa egin ondoren, informazioa kapituluaren arabera aurkeztea erabaki dugu; 1) sarreran, kiroleko sexu-jazarpenari eta sexuaren ziozko jazarpenari buruzko mitoak aipatuko dira, baita txostenaren helburu espezifikoak ere, 2) glosarioan, hitz batzuen definizioak aurkeztuko dira, 3) sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena kirolean; informazio hori funtsezkoa izango da guztiontzat berdina den definizio bat zehazteko, gauza berari buruz hitz egin ahal izateko; 4) entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak; hor entrenatzaileek gainditu behar ez duten muga ikusiko da, entrenatzaileen portaera onargarriak eta onartezinak aztertuko dira, eta sexu-abusua eragin dezaketen prozesuak eta portaera moduak azalduko dira; 5) kirol-erakundeetan sexu-abusuak prebenitzeko erabilitako neurriak, garrantzi berezia emanez hainbat lekutan, hala nola Kanadan dauden babesei eta programei; 6) sexu-jazarpenak kirol-jardueran dituen ondorioak, eragina pairatzen duen kirolariaren esparru guztiak kontuan hartuta, eta, amaitzeko, 7) ondorioak aurkeztu dira epilogo batean.

Kapitulu bakoitza ikerketa-galdera bakoitzari buruz lortutako emaitzek osatzen dute, eta honako atal hauetan banatzen da:

- ✓ Sarrera: kapituluaren helburuak eta galdera nagusiak.
- ✓ Ikerketa-galderarekin lotutako alderdi bakoitzeko:
 - Edukiaren azterketa: erabilitako artikuluko zientifikoen emaitza nagusiak.
- ✓ Erreferentziak: kapitulua osatzeko kontsultatutako bibliografia.

1.5. Erreferentziak

Kirol Kontseilu Gorena (2019). Guía de detección del abuso sexual infantil en el ámbito del deporte para profesionales, 8-23.

Fasting, K., Brackenridge, C. eta Sundgot-Borgen, J. (2004). Prevalence of sexual harassment among Norwegian female elite athletes in relation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 39(4): 373-386.

Fernández Villarino, R. (2000). Acoso sexual en el trabajo. *Revista Científica, FCV-LUZ*, III(173).

Horcajo, M. M., eta Pujol, A. J. (2014). El acoso sexual en el deporte: El caso de las estudiantes-deportistas del grado de ciencias de la actividad física y el deporte de Cataluña. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 115(1), 72–81. [https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.\(2014/1\).115.07](https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.(2014/1).115.07)

Mountjoy, M., Brackenridge, C., Arrington, M., Blauwet, C., Carska-Sheppard, A., Fasting, K., eta Budgett, R. (2016). International Olympic Committee consensus statement: Harassment and abuse (non-accidental violence) in sport. *British Journal of Sports Medicine*, 50(17), 1019–1029. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2016-096121>

Ohlert, J., Seidler, C., Rau, T., Rulofs, B., eta Allroggen, M. (2018). Sexual violence in organized sport in Germany. *German Journal of Exercise and Sport Research*, 48(1), 59–68. <https://doi.org/10.1007/s12662-017-0485-9>

Parent, S., Lavoie, F., Thibodeau, M. È., Hébert, M., eta Blais, M. (2016). Sexual Violence Experienced in the Sport Context by a Representative Sample of Quebec Adolescents. *Journal of Interpersonal Violence*, 31(16), 2666–2686. <https://doi.org/10.1177/0886260515580366>

Kirby, S. L., Greaves, L., eta Hankivsky, O. (2000). “The dome of silence: Sexual harassment and abuse in sport” Halifax, Nova Scotia, Canada: Fernwood.

2.- GLOSARIOA

2. GLOSARIOA

Kapituluetan azaltzen den edukia errazago ulertzeko, kiroleko sexu-jazarpenarekin eta sexuaren ziozko jazarpenarekin lotutako oinarritzko kontzeptuen definizioak ezagutaraztea komeni dela uste dugu. Definizio horiek literatura zientifikoan eta indarreko legeetan oinarrituta daude.

2.1. Gako-hitzak

✓ Sexu-jazarpena

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (EGBELO, BOE, 2007, 12. or.) ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, hau da sexu-jazarpena: «sexu-izaerako edozein portaera, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, eta portaera horren jomuga den pertsonaren borondatearen aurkakoa, bere osotasun fisikoaren edo psikologikoaren aurka egiteko edo ondorio hori sortzeko xedearekin». Brackenridgeren arabera (1997), sexu-jazarpena ez dago sexu-diskriminaziotik bereizita, ezta sexu-abusua izan daitezkeen jazarpen modu gogorragoetatik ere. Hori dela-eta, 3 etapa daudela esaten du:

Lehenengoak, sexu-diskriminazioak, emakumeek gizonak baino soldata txikiagoak, erraztasun gutxiago eta baliabide tekniko txarragoak dituztela deskribatzen du; bigarrenak, sexu-jazarpenak, arreta jasotzea gogoz kontra, atletaren sexuan oinarritutako txistek eta iruzkinak, dei eta mezu elektroniko lizunak eta abar deskribatzen ditu; eta, azkenik, hirugarren fasea dago, sexu-abusuarena, sexu-ekintza hertsatzaileak eta sexu-mesedeen truke lortutako pribilegioak eta sariak izaten direna.

✓ Jazarpen sexista edo sexuaren ziozko jazarpena

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (EGBELO), ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, hau da jazarpen sexista edo sexuaren ziozko jazarpena:

«Pertsona jakin baten sexua dela-eta, haren duintasunari erasotzea eta makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea xede duen portaera oro». (BOE, 2007, 12. or.)

✓ Sexu-abusua

Sexu-abusua baimena ematen ez zaion edo eman ezin zaion edozein sexu-jarduera da. Kirolean, atleta manipulatzeko eta engainatzea izaten dira (Suecia et al., 2008).

✓ Bullying bidezko jazarpena

Olweus (1996), Sullivan, Cleary eta Sullivan (2005) eta Cerezo (2009) egileen arabera, indarkeria mota hori denbora luzean eta behin eta berriz gertatzen da, biktimaren isiltasunaren eta inguruko pertsonen pasibotasunaren ondorioz. Indarkeria mota horrek biktima baten aurka mehatxuak eta/edo eraso fisiko eta psikologikoak, larderiak eta isolamendu sistematikoa dakartza eta gizabanako batek edo batzuek eragiten dute, normalean talde batek lagunduta.

✓ Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena

Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena eraso fisiko, psikologiko eta sozialen bidez egiten dena da. Ekintza horien barnean honako hauek sartzen dira, besteak beste: norbait alde batera uztea, baztertzea, irainak, laidoak eraso fisikoak eta abar jasotzea, baita hilketak gauzatzea edo suizidioa eragitea ere (Platero Méndez, 2007).

✓ Genero-identitatean oinarritutako jazarpena

Pertsona baten genero-adierazpenaren edo -identitatearen aitzakian, haren duintasunari eraso egitea, edo larderiako edo etsaitasunezko giroa, giro apalesgarria, iraingarria edo baztertzailera sortzea helburu edo ondorio duen portaera edo jokabide oro. Adibidez: pertsona trans bati berak nahi duen bezala deitzeari uko egitea edo, espainieraz, bera identifikatzen den generoari ez dagozkion artikulua edo izenordainak nahita erabiltzea (Genero Berdintasunerako Unitatea, 2016).

✓ Indarkeria

Ez da adostutako definizio bakarra aurkitu; hala eta guztiz ere, indarkeriaren adierazpen doloekoenei eta zuzenekoenei ez ezik, indarkeriaren egitura- eta kultura-elementuei ere erreferentzia egiten dieten batzuk aurki ditzakegu, eta, horretarako, Galtungen (2016) eta Matthews (2017) ekarpena hartu dugu kontuan. Horrela, indarkeria kulturala honela definitzen da: «indarkeria modu zuzenekoan edo egiturazkoan legezkotzat jotzeko erabil daitezkeen kultura bateko edozein alderdi». Indarkeria kulturalaren adibide garbi bat, beraz, futbolaren maskulinizazioa da.

✓ Groominga

Groominga tresna bat da, balizko abusatzaileek erabil dezaketena norbaitek (normalean, adingabe batek) haiekin konfiantza hartu dezan, eta, hala, abusuak gauzatu ahal izateko. Groomingak urteak iraun ditzake, eta gerta daiteke arretaren xede den pertsona ez ohartzea bere eta haren artean gero eta lotura sendoagoa sortzen ari dela. Azkenean, pertsona sare mental edo emozional moduko batean harrapatuta geratzen da, eta ez da gai sentitzen abusatzailearen sexu-desirak eta -nahikeriak betetzeari uko egiteko. Norbait sexu-abusurako erakartzeko eta/edo hertsatzeko, poliki-poliki eskuratu behar da haren konfiantza, sexu-harremanerako pertsona arteko hesiak sistematikoki apurtzeko gero. Prozesuak, hasiera batean, xalo samarra dela eman dezake; adibidez, kirolaria etxera eramateko edo beste pribilegio berezi batzuk emateko prest dagoen entrenatzailea. Era horretara prestatzen diren atleta gazteek obeditu behar horren gatibu direla senti dezakete; agintzen zaiena beteko dutela ziurtatzeko edo behartzeko, taldetik kanporatzeko mehatxuak egiten dira, edo pribilegioak eman edo ukatu (Bringer et al., 2001).

✓ Hasiberriarenak

Hasiberriarenak armadan, ikasle-egoitzetan, kirol-taldeetan eta abarretan izaten diren ohiturazko jokabideak dira, taldekide berriak inimiziazio-ekintza sinbolikoak egitera behartzeko; kasu askotan, taldekideen ekintzak umiliagarriak edo iraingarriak eta konnotazio sexual argikoak izaten dira, eta taldean denbora gehiago eramateak ematen dien aginpidean oinarritzen dira (Azurmendi y Fontecha, 2015).

✓ Istripuzko indarkeria

Kirolaren alorrean erabiltzen den terminoa, kirolean kiroleko indarkeriazko portaera berezkoak (ukabilkadak edo ostikoak borrokako kirolean, adibidez) eta berezkoak ez direnak (inimiziazio-ekintzak edo sexu-jazarpena, adibidez) bereizteko (Brackenridge, 2002).

2.2. Jazarpenaren adierazpenak

Hainbat egileren arabera (Ballesteros y Mata, 2017; Caballo et al. 2011), kontuan hartuta, hauek dira jazarpen motak:

✓ Ziberbullyinga

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) erabiltzea bullyinga egiteko, testu-mezen, sare sozialen, telefono mugikorraren, argazkien, bideoen eta abarren bidez.

✓ Materiala erabiltzea

Ondasunak kaltetu, hondatu edo baimenik gabe hartzea. Hauek ere izan daitezke: lapurreta, objektuak gordetzea, ondasun pertsonalen bat (objektuak edo dirua) ematera behartzea kalterik ez jasotzearen eta klubaren zentroetan lekuetara edo zerbitzuetara sartu ahal izatearen truke. Adibidez, igeriketa-materiala dagoen sarea ezkutatzea eta, harik eta askariko ogitartekorako dirua eman arte, ez itzultzeko mehatxua egitea.

✓ Hitzeko indarkeria

Biktimei min emateko hizkera erabiltzea, hauen bidez: irainak, gezurrak, gutxiesteak, asmo txarreko zurrumurrak edo iruzkinak, iruzkin diskriminatzaileak edo mespretxuzkoak (adibidez, ezaugarri fisikoengatik, kognitiboengatik, nazionalitatearengatik, sexu- edo genero-aniztasunarengatik, etab.), hitzeko abusuak, izen ona kaltetzea.

✓ Indarkeria fisikoa

Nahita egindako ekintza, pertsona baten osotasun fisikoa lesionatzeko, tartean, kolpeak, ostikoak, zango trabak, zimikoak, bultzakadak, ile-tiratzeak, giltzapetzeak, sarrarazteak eta abar.

✓ Indarkeria psikologikoa

Hitzez egin daiteke; irainak, gezurrak, isekak eta xantaiak, baita asmo txarreko ezizenak eta zurrumurrak, umiliazioak eta irainak, eta gizarte-bazterketa.

✓ Sexu-indarkeria

Sexu-educikiko iruzkinak, intsinuazioak eta mehatxuak edo indarreko sexu-delituez edo sexu-jazarpenari buruzko araudian tipifikatuez bestelako sexu-exhibizio esplizitua.

2.3. Erreferentziak

- Ballesteros, B., eta Mata, L. (2017). Jóvenes: bullying y ciberbullying. *Revista de estudios de juventud* 2017 115(1): 9-279. *Revista de Estudios de Juventud*, 115.
- Brackenridge, C. (2002). Spoilsports (understanding and preventing sexual exploitation in sport): *British Journal of Sports Medicine*, 36(4), 311–311. <https://doi.org/10.1136/bjism.36.4.311>
- Bringer, J. D., Brackenridge, C. H., eta Johnston, L. H. (2002). Defining appropriateness in coach-athlete sexual relationships: The voice of coaches. *Journal of Sexual Aggression*, 8(2), 83–98. <https://doi.org/10.1080/13552600208413341>
- Caballo, V. E., Arias, B., Calderero, M., Salazar, I. C., eta Irurtia, M. J. (2011). Acoso escolar y ansiedad social en niños (I): Análisis de su relación y desarrollo de nuevos instrumentos de evaluación. *Behavioral Psychology/ Psicología Conductual*, 19(3), 591–609.
- Cerezo Ramírez, F. (2009). Bullying: Análisis de la situación en las aulas Españolas TT - Analysing bullying in Spanish schools. *International Journal of Psychology & Psychological Therapy*, 9(3), 383–394.
- Azurmendi, A. eta Fontecha, M. (2015). *Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak*. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Fernández Villarino, R. (2000). Acoso sexual en el trabajo. *Revista Científica, FCV-LUZ*, III(173). 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa (EGBELO, BOE, 2007, 12. or.)
- Olweus, D. (1996). Bullying at School: Knowledge Base and an Effective Intervention Programa. *Annals of the New York Academy of Sciences*, 794: 265-276
- Platero Méndez, R. (2007). *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*.
- Sullivan, K., Cleary, M. eta Sullivan, G. (2005). *Bullying En La Enseñanza Secundaria*. Bartzelona: Ceac
- Suecia, A. L., Médica, C., Canadá, M. M., Brackenridge, C., Unido, R., Ciencias, D., eta Canadá, S. K. (2008). Acoso y abuso sexuales en el deporte . *Apunts Educació Física i Esports*, 158, 88–93.

Genero Berdintasunaren Unitatea (2016). *Guía de prevención y detección de acoso sexual, acoso sexista y acoso por orientación sexual e identidad o expresión de género*. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

3.- SEXU-JAZARPENA ETA SEXUAREN ZIOZKO JAZARPENA KIROLEAN

3. SEXU-JAZARPENA ETA SEXUAREN ZIOZKO JAZARPENA KIROLEAN

3.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak

Kapitulu honetan kirol-eremuko sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena aztertzen dira. Sexu-jazarpena hau da: «*pertsona baten duintasunari erasotzeko edo makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea xede duen sexu-izaerako portaera oro*» (BOE, 2007, 12. or.). Sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena konplexutasun handiko gaia izanik, honako alderdi hauek aztertuko ditugu: sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren motak eta ezaugarriak, jazarle motak, arrisku-faktoreak eta egoera horiek eragiten dituzten kausak, horiek gertatzen diren leku ohikoenak, erabiltzen diren metodoak eta jazarleek erabiltzen duten prestaketa-prozesua (groomingak), sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren eta kirol-espezializazioaren mailaren arteko lotura. Galdera hauei erantzungo diegu:

Zenbateraino daude sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren kasuak kirol-eremuan?
Zer motatako sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena daude kirol-eremuan? Nola gertatzen dira, nork egiten ditu eta non gertatzen dira egoera horiek?
Nola eragiten du kirol motak eta kirol-espezializazioaren mailak sexu-jazarpenean?

Kapitulu honetan lau helburu espezifiko hauek izango ditugu:

- ✓ Kirol-eremuko sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren motak eta horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak zehaztea.
- ✓ Jazarle motak, metodoak, erabiltzen dituzten prestaketa-prozesuak eta jazarpenak gertatzen diren leku ohikoenak aztertzea.

- ✓ Sexu-jazarpenaren eta kirol motaren artean dagoen lotura aztertzea, kirola diziplina indibidualetan eta kolektiboetan bereizita.
- ✓ Sexu-jazarpenaren eta jarduketa-eremuen (errendimendu handiko kirola eta kirol partizipatiboa) artean dagoen lotura aztertzea.

3.2. Motak eta ezaugarriak

3.2.1. Sexu-jazarpenera

Sexu-jazarpenera da pertsona batenganako edo pertsona talde batenganako jokabide jakin bat, hots, sexu-izaerako portaera fisiko bat, hitzezkoa edo ez-hitzezkoa, nahitakoa eta legez kanpokoa, eta nagusikerian oinarritua, betiere biktimaren borondatearen aurkakoa dena edo, lekuko baten iritziz, behartua dena (BOE, 2007, 12. or.). Sexu-abusua baimena ematen ez zaion edo eman ezin zaion edozein sexu-jarduera da. Genero-arrazoiengatikoa jazarpenera eta homofobia, oro har, kirolean etengabe gertatzen diren sexu-jazarpenaren eta -abusuaren adierazpenak dira. Genero-arrazoiengatikoa jazarpenera da genero-identitateak sistematikoki eta behin eta berriz mespretxuz tratatzea, baina ez nahitaez sexu-asmoz (Arne et al., 2008).

Bilbao (2002)ren hitzetan, sexu-jazarpenak adierazpide hauek izan ditzake: sexu-konnotazioko irainak, aurpegiarekin edo gorputzarekin egindako sexu-izaerako keinuak edo adierazpenak, sexu-izaerako iradokizunak eta iruzkinak gorputzari, janzkerari, bizitza pribatuari eta sexu-orientazioari buruz, sexu-izaerako ukituak (zimikoak, musu ematen saiatzea, gorputz-kontaktua, gehiegizko hurbilketa, etab.), eduki sexualeko telefono-deiak, mezuak (sms), mezu elektronikoak, edo gutunak, eduki sexualeko argazkiak edo objektuak bidaltzea edo erakustea, txantxa sexistak edo isekak, sexu-proposamenak egitea behin eta berriz, edo sexu-jokabidearekin lotutako intsinuazioak eta baimenik gabeko sexu-ekintzak (bortxaketa edo bortxaketa-ahalegina).

Entrenatzailearen eta kirolariaren artean sarritan sortzen diren elkarreragin fisiko eta emozional handien ondorioz, zaila izaten da kiroleko sexu-jazarpenera izan daitezkeen jokabideak definitzea eta identifikatzea (Branckenridge, 1997). Askotan, ez atletek ez horien ahaideek ez dakite ziur non den entrenatzaileak atletarengan duen eraginaren eta interesaren muga. Ikuspegi soziokritikotik, Branckenridge (1997)k dio sexu-jazarpenera jokabide sexista bat dela eta lotura handiagoa duela boterearekin, genero- eta klase-nagusikeriarekin, eta lan-, hezkuntza- edo kirol-erakundeei datxekien hierarkiekin behar biologiko baten barneko sexu-instintuarekin baino. Horrela, Pernasek eta beste batzuek (2000, 13-14 or.) adierazten dute sexu-jazarpenera testuinguruan jartzeak esan nahi duela onartzea «sexu-jazarpenera ez dela psikologikoa, soziala

baizik; ez dela apartekoa, ohikoa baizik; eta ez dela neutrala, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren emaitza baizik» (13-14 or.).

Brackenridgeren arabera (1997), sexu-jazarpena, ez dago sexu-diskriminaziotik bereizita, ez eta sexu-abusua izan daitezkeen jazarpen modu larriagoetatik ere. Egile horrek «nagusiki instituzionala izatetik gehienbat pertsonala izateraino doan continuum» bat bezala irudikatzen du (116. or.). Brackenridgek hiru fase zehazten ditu (ikus 1. taula).

1. taula. Sexu-jazarpenaren faseen continuuma (Brackenridge, 1997)

1. Sexu-diskriminazioa	2. Sexu-jazarpena	3. Sexu-abusua
Adierazten du emakumeek gizonen baino soldata txikiagoak, erraztasun gutxiago eta baliabide tekniko okerragoak dituztela.	Arreta jasotzea gogoz kontra, atletaren sexuan oinarritutako txisteak eta iruzkinak, dei eta mezu elektroniko lizunak eta abar deskribatzen ditu.	Sexu-ekintza hertsatzaileak eta sexu-mesedeen truke lortutako pribilegioak eta sariak gertatzen dira.

Sexu-jazarpenaren barruan, bi mota daude: a) sexu-xantaia edo «*quid pro quo* jazarpena» eta b) inguruneko sexu-jazarpena (Fernández Villarino, 2000).

3.2.2. Sexu-xantaia edo «*quid pro quo* sexu-jazarpena»

Sexu-xantaiaren nabarmendu behar dugu jazarleak jazarritako pertsonak baino lanpostu handiagoa betetzen duela hierarkia-mailan (Fernández Villarino, 2000). Besteak beste, honako portaera hauek izan daitezke sexu-xantaiaren edo *quid pro quo* jazarpenean oinarritutako sexu-jazarpena:

- ✓ Sariren bat jasotzeko eskaintza edo iradokizuna egitea zenbait sexu-eskakizun betetzearen truke.
- ✓ Errepresaliaren bat jasotzeko mehatxua edo iradokizuna egitea, zenbait sexu-eskakizunetan laguntzea onartzen ez bada.

3.2.3. Inguruneko sexu-jazarpena

Hau jasaten duen pertsonarentzat larderiazkoa, apalesgarria edo iraingarria gerta daitezkeen ingurunea sortzeko sexu-izaerako portaera edo jokabidea dela esan daiteke. Sexu-xantaiaren kasuan ez bezala, sexu-eskakizuna ez dago zuzenean baldintzatuta jazarlea hierarkian gorago edo

pertsona jazarriarengan lan- edo kirol-ondorio negatiboak izan ditzakeen posizioan egoteagatik. Ingurunekeo sexu-jazarpenaren kasuan, bi mota bereiz ditzakegu (Club Bera Bera, 2017):

- ✓ Ingurune sexistan oinarritutako sexu-jazarpena; sexu-mesedeak ez dira helburu, baina jarrera etsaitasunezkoak, iraingarriak eta sexistak dakartzaten portaerak gertatzen dira.
- ✓ Gogoz kontra jasotako sexu-arretan oinarritutako jazarpena; pertsona jazarriak sexu-arreta jasotzen du gogoz kontra, modu pertsonalizatuan eta inbaditzailean.

2. taulan, bi jazarpen mota horien adibide izan daitezkeen jokabideak agertzen dira.

2. taula. Ingurune sexistan eta gogoz kontra jasotako sexu-arretan oinarritutako sexu-jazarpena izan daitezkeen jokabideak.

Ingurune sexistan oinarritutako sexu-jazarpena izan daitezkeen jokabideak	Txiste eta txantxa iraingarriak.
	Izaera sexistagatik umiliagarria edo iraingarria den materiala erakustea.
Gogoz kontra jasotako sexu-arretan oinarritutako jazarpena izan daitezkeen jokabideak	Sexu-harremana hasteko behin eta berriz egindako gonbidapenak, nahiz eta ezezkoa argi adierazi.
	Nahita, eskatu gabe eta sobera egindako kontaktu fisikoa, hala nola ukituak, zapladak edo zimikoak.
	Deseroso sentiarazten duten begiradak edo keinu lizunak, eta arreta edo adeitasun berezia, sexu-interes ez elkarrekikoan oinarritua.

Fernández Villarino (2000)k jazarpen mota desberdinen portaerak bereizten ditu. Honako hauek bereizten ditu, besteak beste: trebakuntzarekin zerikusia duten portaerak (irabazteagatik besarkatzea, jarraibideak emateko asko hurbiltzea, agurtzean besoa edo sorbalda ukitzea, etab.), kirol-trebakuntzarekin zerikusirik ez duten portaerak, baina testuinguruagatik kirolaren mende daudenak (kafe bat hartzea, etxera, afaltzea, etab., gonbidatzea, kirolariari asteburuan zer egingo duen galdetzea, etab.), portaera sexistak (mespretxuzko iruzkinak, asteburuko planak kontatzea, lausenguak kirolariari itxura fisikoagatik eta abar) eta kontaktu fisikoak eta hitzezko hurbilketak barne hartzen dituzten portaerak (kirolariarekiko sexu-interesa adieraztea, sexu-

harremanak proposatzea trukean ezer eman gabe, kirolariaren bizitza sexualari buruz galdetzea argi eta garbi, bularrei edo ipurdiari adi-adi begiratzen die, masajeak ematen ditu bizkarrean edo sorbaldetan, sexu-harremanak proposatzea pribilegioen truke edo mehatxupearan).

3.2.4. Jazarpen sexista edo sexuaren ziozko jazarpena

Jazarpen sexista da pertsona baten sexua dela-eta, pertsona horren duintasunari erasotzeko edo makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea xede duen portaera oro. Jarraian, jazarpen sexistaren motak eta horien adibideak azalduko ditugu (ikus 3. taula) (Club Bera Bera, 2017):

3. taula. Jazarpen sexistaren motak eta jokabideak.

Jazarpen sexistaren mota	Jokabideak
Hitzezko jazarpen sexista	Pertsona bati, bere sexuaren zioz, zentzurik gabeko edo lortu ezinezko zereginak (epe zentzugabeak) esleitzea.
	Pertsona bat bere gaitasuna edo lanbide-kategoria baino erantzukizun txikiagoko lantoki batera esleitzea, bere sexuagatik bakarrik.
	Sexuaren arabera, ekarpenei, iruzkinei edo ekintzei jaramonik ez egitea (baztertzea, kontuan ez hartzea).
	Umore sexista erabiltzea.
	Sexua dela-eta, pertsonen gaitasunak, trebetasunak eta adimen-ahalmena barregarri uztea eta gutxiestea.
	Tradizioz sexueta batek bere gain hartu izan dituen zereginak hartzen dituzten pertsonak barregarri uztea (adibidez, gizonetako erizainak edo garbitzaileak).
	Norbaitek eskubidez dituen baimenak modu arbitrarioan ukatzea, sexua dela eta.
	Sexu jakin bateko pertsonen egindako lana mespretxatzea.
	Sexu jakin bateko pertsonekin hitz egiteko modu iraingarriak erabiltzea.
Larderiako giroa sortzen duten keinuak erabiltzea.	Lana zapuztea edo behar bezala egiteko bideak oztopatzea –nahita– (informazioa, dokumentuak, ekipamendua).

Ez-hitzezko jazarpen sexista	Jokabide diskriminatzaileak izatea emakumea edo gizona izateagatik.
Jazarpen sexista fisikoa	Hurbilketak eragitea.
	Nahita bilatzea pertsona batekin bakarka gelditzea inolako beharrik gabe, ikaratzeko.
	Gehiegizko hurbilketa fisikoa egitea.
	Indar fisikoa erabiltzea sexu bat beste bati gailentzen zaiola erakusteko.

Bestalde, sexu-orientazioaren ziozko jazarpena pertsona baten aurkako edozein jokabide edo beste mota bateko ekintza oro da, bere sexu-orientazioagatik iraingarritzat, umiliagarritzat, indarkeriazkotzat eta larderiazkotzat jo daitekeena, eta haren duintasunaren aurka egiteko eta ingurune diskriminatzaile bat sortzea dituen helburu edo ondorio. Adibide gisa, sexu-orientazioan oinarritutako jazarpen-jokabide bat dagoela erakuts dezakete jarraian zerrendatuko diren portaerek eta ekintzek (Club Bera Bera, 2017):

- ✓ Jokabide diskriminatzaileak izatea pertsonaren sexu-orientazioarengatik.
- ✓ Pertsonari modu iraingarrian hitz egitea.
- ✓ Pertsona barregarri uztea bere sexu-orientazioagatik.
- ✓ Egindako lana gutxiatea pertsonaren sexu-orientazioarengatik.
- ✓ Ekarpenei, iruzkinei edo ekintzei jaramonik ez egitea (bartzertzea, kontuan ez hartzea) sexu-orientazioaren arabera.
- ✓ Tratu desberdina ematea homosexualei eta bisexualei, eta, orobat, genero-identitateagatik.

3.3. Jazarle motak

Brackenridge (2002)k dioenez, mota horretako indarkeriazko jokabideak ez dituzte entrenatzaileek bakarrik egiten. Jazarleen artean daude, halaber, taldekideak, eta kirol-erakundeetan esku hartzen duten eragileak eta profesionalak, hala nola entrenatzaileak edo sanitarioak (Joy et al., 2021).

Kirolari erasotzaileei biktimei baino geroago erreparatu zaie ikerketetan, beharbada erasotzaileengana iristearekin lotutako gai etikoengatik (Brackenridge, 2002). Jazarpenaren egileek ekintza horiek zergatik egiten dituzten ulertzeko, O'Hare y O'Donohue (1998)ek eta Pina,

Gannon, y Saunders (2009)ek eredu naturala/biologikoa, antolaketa-eredua eta eredu soziokulturala zehaztu dituzte. Eredu biologikoaren arabera, gizonek sexualki oldarkor jotzen dute, emakumeek baino bulkada sexual indartsuagoak dituztelako. Antolaketa-eredua sexu-roletan oinarritzen da, eta lanean desegokiak diren portaera transmititzeari egiten dio erreferentzia. Erakundeen egitura hierarkikoa abusu-bide izan liteke. Eredu soziokulturalak sexu-jazarpena gertatzen den testuinguru sozialari heltzen dio, eta, askotan, nagusiki maskulinoa izaten da. Horrela, teoria horiei jarraituz, O'Hare y O'Donohue (1998)ek adierazten dute gizabanako batek sexu-eraso bat egiteko oinarritzko lau baldintza bete behar direla: (1) gizabanakoak motiboren bat izan behar du jazartzeko (adibidez, sexu-erakarpen bat), (2) gizabanakoak ez jazartzeko barne-inhibizioak gainditu behar ditu, hala nola errepresalien beldurra, (3) gizabanakoak jazarpenarekiko kanpo-inhibizioak gainditu behar ditu eta (4) gizabanakoak biktimaren erresistentzia gainditu behar du.

Kirol-erakundeetan esku hartzen duten profesionalen artean, entrenatzaileak izaten dira jazarleak (Joy et al., 2021). Fasting et al. (2011)en arabera, Grezia, Norvegia eta Txekiar Errepublikako kirolarien kirol-esperientziei buruzko azterlan transkultural batean ikusi zen gizonezko nahiz emakumezko entrenatzaileengandik pairatu daitezkeela sexu-indarkeria. Ildo horretan, azpimarratzekoa da kirolean atleten eta entrenatzaileen arteko harremanak oso bereziak izaten direla. Atleten, kirol-arrakasta edo -bikaintasuna lortze aldera, konfiantza jartzen dute beren entrenatzaileengan, eta konfiantza hori itsua eta baldintzarik gabekoa izaten da askotan. Horren ondorioz, entrenatzaile batzuek oso botere-kuota handiak izan ditzakete beren atletengan, eta, kasu batzuetan, nagusikeriazko ekintzetarako bide eman (Horcajo y Pujol, 2014). Aipatzekoa da, halaber, sanitarioak ere izan daitezkeela jazarle, atletekin dituzten harremanak entrenatzaileek dituztenen antzekoak baitira (Vargas et al., 2021).

Taldeakide jazarleei dagokienez, hainbat azterlan daude, hala nola Vertommenek eta beste batzuek egindakoa (2016). Azterlan horretan, Belgikako eta Herbehereetako 4.000 kirolari baino gehiago elkarrizketatu zituzten, 18 urte bete aurretik kirol-testuinguruan izan zituzten pertsonen arteko indarkeria-esperientziei buruz. Azterlan horren emaitzek erakutsi zuten parte-hartzaileen % 44k gutxienez indarkeria mota bat jasan zutela kirolean (sexuala, psikologikoa edo fisikoa). Zehazki, jakinarazi zuten % 14k sexu-indarkeria, hau da, bortxaketa edo sexu-abusua jasan zutela. Kirolarien arteko sexu-indarkeria hainbat egoeratan gerta daiteke, hala nola kirol-hastapenetan (hasiberriarenetan), taldeak antolatutako jaietan, lehiaketetan edo entrenamenduetan (Parent y Fortier, 2017).

3.4. Arrisku-faktoreak eta kausak

Literatura zientifikoan arrisku-faktoreei buruz eztabaidatzen denean, faktore horiek jazarpen modu berezi baten ikuspegitik hartzen dira kontuan, eta, lehen esan dugun bezala, ez dira jazarpen edo abusu mota bakoitzaren ezaugarri sistemiko eta erlazionalak aztertzen. Ohiko gaiak, Rhindek eta Owusu-Sekyerek (2018) zehazten dutenaren arabera, hauek izan ohi dira: jazarlearen (oro har, entrenatzailea) boterea, adingabeen eta entrenatzaileen arteko hurbiltasuna, adingabeen kalteberatasuna edo horien ongizatearekiko portaera arduragabeak, besteak beste (Brackenridge eta Rhind, 2014; Fasting eta Sand, 2015; Brackenridge, 2001; Stirling eta Kerr, 2008; Gervis eta Dunn, 2004). Nolanahi ere, azterlan horiek guztiak aztertu ondoren, arrisku-faktore orokorrak atera daitezke (ikus 4. taula) (Rhind eta Owusu-Sekyere, 2018).

4. taula. Haurrek kirolean jasaten dituzten tratu txarren arrisku-faktore orokorrak (hemendik hartua: Rhind eta Owusu-Sekyere, 2018, 30. or.).

Arrisku-faktoreak	Deskribapena
Egileak	Haurren tratu txarren egileak (adibidez, entrenatzaileak, taldekideak, gurasoak eta ikusleak).
Haurra	Haurraren ezaugarri fisikoak eta psikologikoak
Lekukoak	Ezer egiten ez dutenak edo oker jokatzuz tratu txarrak iraunarazten, larriagotzen edo laguntzen dituztenak.
Ingurune fisikoa	Kirol-jarduerarako egokitasuna eta kaltea jasateko ezkutuko arriskua.
Kirola	Kiroleko elementu kulturalak eta egiturazkoak (adibidez, komunikatzeko <i>prozedura</i>).


Kirol-eremuko arrisku-faktoreez hitz egiten dugunean, hiru mota izan behar dira kontuan: motibaziozkoak, jokabidezkoak eta testuingurukoak.

Kirolean, entrenatzailearen eta kirolariaren artean sarritan sortzen diren elkarreragin fisiko eta emozional handien ondorioz, zaila izaten da sexu-jazarpena izan daitezkeen jokabideak definitzea eta identifikatzea (Brackenridge, 1997). Horrela, Bringerrek eta beste batzuek (2002) adierazten dutenez, kirol-kulturan, entrenatzaileak (ahalguztiduna den aldetik) eta kirol-errekonozimendua lortzeko edo kirol-selekziotik kanpo ez geratzeko lehia handiak giro egokia sortzen dute

indarkeriazko jokabideak agertzeko, hala nola kirolarien aurkako sexu-jazarpena, gehienbat emakumeen aurka. Cense y Brackenridge, (2001) kontuan hartuta, haien helburua aurreko azterlana (1996, 1997a, 1997b) sendotuz arrisku-faktoreak ezartzea zenez, kirolean sexu-abusuak egiteko arrisku-faktore hipotetiko batzuk ezarri zituzten. Faktore horiek, gerora, Kanadako eliteko atletei buruz egindako ikerketa baten emaitzek indartu dituzte.

Ikuspuntu horretatik, eta Bringer eta beste batzuk (2002) kontuan hartuta, pentsa daiteke entrenamendu-ordu luzeetan elkarrekin bizitzeak, kirola egin bitartean atsedeen-egunik ez izateak edo espazio bera partekatzeak berekin ekar dezakeela autoritate gisa duen rola ez ezik, «lagunen» rola ere hartzea. Rol horrek, alde batetik, kirolariekiko hurbiltasun handiagoa izaten laguntzen du, baina, beste alde batetik, kirolariek entrenatzailearen indarkeriazko jokabidea jasotzen dutenean, ezer gutxi egin dezakete horren inguruan, entrenatzailea autoritate gorentzat hartzen baita kirol-testuinguruan, edo kirolean edo adiskidetasun-harreman batean berezko portaera naturala dela uste izaten delako. Horrela, zaila da portaera horien aurkako salaketarik izatea.

Halaber, kirolari adingabearen eta entrenatzailearen arteko harremanari gagozkiola, Brackenridge eta Kirby (1997) egileek une bereziki sentibera bat hauteman zuten kirolari adingabearen kalteberatasunari dagokionez: Berehalako Arrakastaren Etapa (BAE), kirolariaren gehieneko errendimenduaren aurreko uneari dagokiona (ikus 1. irudia). Aldi horrek urteak, hilabeteak edo asteak iraun ditzake, kasu bakoitzaren arabera. Hipotesi horren arabera, atletak arrisku handiagoa du kirol-autoritatearen (batez ere entrenatzaileek) abusua, eta bereziki sexu-abusua, jasateko elite-mailara iritsi aurreko aldian. Zergatik? Etapa horretan, kirolean urteetan zehar inbertsio fisikoa, psikologikoa eta finantzarioa egin ondoren, atletak ez duelako ia ezer irabaziko eta asko galduko duelako bizi duen egoeraren berri ematen badu. Oso gutxi geratzen zaie eliteko kirolariak izateko eta dominak irabazi ahal izateko. Abusuez kexatzea edo abusuen berri ematea, kirolaria taldetik baztertzeko, zigortzeko edo kanporatzeko aitzakia izan daiteke.



1. irudia. Sexu-abusua izateko arriskua: adin kronologikoa kirol-adinaren arabera (hemendik hartua: Brackenridge eta Kirby, 1997: 414).

Horcajo y Pujol (2014)ek egindako azterlanari esker, sexu-jazarpenarekin lotutako portaerei buruzko pertzepzio hedatuenak zein diren ezar dezakegu. Zentzu honetan, argi eta garbi adierazten duten portaera hauxe da: sexu-harremanak proposatzea pribilegioen truke. Ondoren, honako hauek aipatzen dituzte: ezpainetan musu ematea eta sexu-harremanak proposatzea trukean ezer eman gabe. Atletaren bularrei edo ipurdiari adi-adi begiratzea ere jazarpen-portaeratzat hartzen dute inkesta egin zaien pertsonen erdiek baino gehiagok. Beste portaera batzuk, ehuneko handiak dituztenak, nahiz eta lehenengoetatik oso urrun egon, honako hauek dira: emakumezko atletari bere bizitza sexualari buruzko galderak egitea, emakumeei buruzko mespretxuzko iruzkinak egitea, emakumezko atletaren itxura fisikoa lausengatzea, emakumezko atleta gonbidatzea afaltzera edo etxera, eta masailean musu ematea. Kontuan izan behar da portaera guztiei iritzi zaiela balizko sexu-jazarpen neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala ere, badira zenbait portaera, entrenamenduarekin zuzeneko lotura dutenak, ez direnak hain erraz lotzen jazarpenarekin. Zentzu horretan, oso gutxirentzat da jazarpena jarraibideak ematean entrenatzailea asko hurbiltzea atletarengana. Portaera hauei gehiagok irizten diote jazarpen: sorbalda ukitzea jarraibideak emateko (% 5,6) eta txikigarriak erabiliz hitz egiten dio atletari.

Hala, kirolean sexu-jazarpena detektatzeko eta salatzeke mekanismoak sortzeko arazo nagusietako bat da ez dagoela tradizioz publikoki aitortzeko emakumezko atletaren gogoz kontra egindako sexu-izaerako portaera bat sexu-jazarpena dela, eta, beraz, portaera hori salatu

eta zigortzeko. Horrela, musuak, besarkadak, ipurmasailetako eta gerriko kontaktu fisiko batzuk kiroleko gure jarraibide kulturalen parte dira, eta, horregatik, emakumezko atleta askok, sistematikoki esperimentatzen dituztenean eta gogoz kontrakoak direnean, ez dakite oso ondo nola erreazionatu, ezta kulturako osagai gisa «normalizatu» duten hori salatzea merezi duen ere (Horcajo y Pujol, 2014).

3.5. Metodoak, prestaketa-prozesua (grooming) eta jazarpen-lekuak

Pryorrek (1996) galdetegi bat egin zuen erasotzaileek erabili ohi dituzten prestaketa-metodoak identifikatzeko. Metodoak, askotan, larderia fisikoa edo hitzekoa edo sariak eta dirua ziren. Ohiko taktika bat izaten zen hitzeko indarra edo indar fisikoa erabiltzea biktimaren adostasuna lortzeko; bestea manipulazio emozionala izaten zen. Azken hori gertatzen zen erasotzaileak biktimari mesedeak egiten zizkionean sexuaren truke, edo, bestela, xantaia emozionala erabiltzen zuenean. Sedukzioa eta probatzea erabiltzen ziren biktimaren eta erasotzailearen artean aurretik harremana zegoenean. Harreman horietan, biktima ohituta zegoen erasotzailearen maitasun moduren batera, eta erasotzaileak aldian-aldian urrats bat gehiago egiten zuen, biktimak sexu-hurbilketen aurrean nola erreazionatzen zuen aztertuz.

Erasotzaileen metodologia horiek kirol-testuinguruetan ere aurkitu dira, entrenatzaileak groominga erabil dezakeenean kirolariaren eta horren familiaren konfiantza lortzeko (Brackenridge, 2001; Toftegaard, 2001). Entrenatzaile abusotzaileek portaera onargarriaren mugak gainditzen dituztela ikusi da, espazio pertsonala gero eta gehiago urratuz, hitzeko konfiantza, xantaia emozionala eta, azkenik, kontaktu fisikoa erabiliz. Kirolari batek horri ezetz erantzuten badio, litekeena da entrenatzaileak kirolaria kirola uztera behartzea. Alabaina, kirolariak intsinuazio horiek onartzen baditu, litekeena da entrenatzailearen eskaerei amore eman behar izatea.

Groominga prestatzeko, hurbiltzeko edo erakartzeko prozesua da. Prozesu horretan lau fase egon daitezke (Brackenridge y Fasting, 2005; Brackenridge, 2002):

- 1) Biktima aukeratzea:
 - a. Kirolaria kaltebera dela ikustea.
 - b. Atsegina izatea.

- c. Uneak bilatzea konfiantzazko pertsona, zuhurra eta sekretuak gordetzen dituen izan daitekeen jakiteko.
- d. Sentibera dela egiaztatzea.
- e. Bere lagun egiten hastea.

2) Konfiantzazko harremana sendotzea:

- a. Berezia dela sentiaraztea.
- b. Berari entzutea.
- c. Berarekin denbora igarotzea.
- d. Tematia izatea.
- e. Elkartze bakoitzerako gutxieneko baldintzak ezartzea.
- f. Negoziatzen hastea, «hau egin behar duzu, nik beste hau egin dudalako».

3) Isolatzea eta kontrolatzea:

- a. Kirolariari besteekin egoten ez uztea edo kirolariaren beste lagun eta babes batzuk gutxiestea.
- b. Inkongruentea eta anbigua izatea itxaropenak sortzean, eta irizpiderik gabe jardutea kirolariari errieta egiteko edo zigortzeko garaian, kirolariarengan zalantzak eta antsietatea sortuz behar duen arreta ez jasotzeagatik.
- c. Konfiantza amarekin, aitarekin edo tutoreekin bakarrik izatea, baina inolaz ere ez zaio utziko taldekideekin edo beste pertsona batzuekin konfiantza izaten.
- d. Kirolariaren konpromisoa eta leialtasuna behin eta berriz egiaztatzea galderen eta galdeketen bidez.

4) Sexu-abusuarekin hastea eta isiltasun-botoa ziurtatzea:

- a. Kirolariak nahi ez badu, engainatzea «azken aldian ez zitzaizun axola izan» esanez.
- b. Lagundu dezala eskatzea: «nirea zara, egin dezakezun gutxienekoa da».
- c. Babesa eskaintzea: «ez dut ezer esango, gure sekretutxoa da».
- d. Biktima gutxiestea, egoera horretan egotea beste aukerarik ez izateko: «besteek ez dute ulertuko», «ez zaitu inork sinetsiko».

- e. Kirolaria mehatxatzea: «norbaiti esaten badiozu, min egingo dizut», «min egingo diot axola zaizun norbaiti», «taldetik botako zaitut».
- f. Sexu-abusuarekin hastea eta isiltasun-botoa ziurtatzea.
- g. Sexu-muga anbiguoetan sartzeari buruzko pixkanaka.

Lekuei dagokienez, Censek eta Brackenridgek egindako azterlanean (2001) arrisku bereziko lau egoera-faktore identifikatu ziren: (1) kirolaria txapelketa batean lehiatzen denean, (2) entrenatzailea masajea ematen ari denean, (3) entrenatzailearen etxean, edo (4) entrenatzaileak atleta etxera eramaten duenean. Norabide berean, antzeko lekuak –bidaiak, entrenamendu-saioak, leku pribatuak, ibilgailuak eta hotelak– arrisku handikotzat hartu zituzten beste azterlan batzuetan (Tuakli-Wosornu et al., 2020).

3.6. Kirol motarekin duen lotura

Fasting, Brackenridge y Sundgot-Borgen (2004)ren arabera, nahiz eta askotan onartzen den sexu-jazarpenaren prebalentzia desberdina dela kirol diziplina bakoitzean, ustea ez da enpirikoki frogatu. Hainbat azterlanen bidez, esate baterako, Fasting et al., (2004) y Timpka et al., (2019)enarekin, azaldu zen sexu-jazarpenera kirol-maila guztietan gertatzen dela. Gainera, kirol motak, erabiltzen den arropa kopuruak edo kirol horretarako behar den kontaktu kopuruak ez dute frogatu sexu-abusua izateko arriskua areagotzen denik (Piper, 2019).

Ikerlanean adierazten da sexu-jazarpenera eta sexu-abusua edozein kirolean eta edozein mailatan gertatzen direla, eta badirudi maizago gertatzen dela eliteko kirolean (Leahy, Pretty, y Tenenbaum, 2002). Atletaren inguruko kideak, botere- eta autoritate-postuak betetzen dituztenak, izaten dira abusatzaile nagusiak, nahiz eta atleten taldekideak ere halaxe identifikatu ohi diren, eta normalean sarriago izaten dira gizonetakoak emakumeetakoak baino. Atletak sexu-jazarpenera eta -abusuko prozesuaren bidez isilarazten dituzte. Sexu-jazarpenera eta sexu-abusua izateko arriskua handiagoa da erakundeek babesik ematen ez dutenean, entrenamendu-orduak gehiagotzen direnean, kirolean parte hartzen duten bitartean atleta gazteak banantzen direnean, atletaren kalteberatasun handia, adin, heldutasun, itxura, pisu eta indarragatik (Fasting, 2005; Hartill, 2009).

3.7. Erreferentziak

- Arne, L., Mountjoy, M., Kirby, S., Fasting, K., y Branckenridge, C. (2008). Acoso y abuso sexuales en el deporte. Año 2006. *Apunts. Medicina de l'Esport*, 43(158), 88–93. [https://doi.org/10.1016/s1886-6581\(08\)70080-x](https://doi.org/10.1016/s1886-6581(08)70080-x)
- Bilbao, M. J. (2002). *El acoso sexual en el deporte. Guía para personas adultas*.
- Brackenridge, C. (2002). Spoilsports (understanding and preventing sexual exploitation in sport): *British Journal of Sports Medicine*, 36(4), 311–311. <https://doi.org/10.1136/bjism.36.4.311>
- Brackenridge, C., y Fasting, K. (2005). The Grooming Process in Sport: Narratives of Sexual Harassment and Abuse. *Auto/Biography*, 13(1), 33–52. <https://doi.org/10.1191/0967550705ab016oa>
- Branckenridge, C. (1997). He owned me basically... Womens's Experience os Sexual Abuse in Sport. *International Review for the Sociology of Sport*, 32(2), 115–130.
- Brackenridge, C.H. y Rhind, D. (2014). "Child Protection in Sport: Reflections on Thirty Years of Science and Activism". *Social sciences*, 3, 326–340.
- Bringer, J. D., Brackenridge, C. H., y Johnston, L. H. (2006). Swimming coaches' perceptions of sexual exploitation in sport: A preliminary model of role conflict and role ambiguity. *Sport Psychologist*, 20(4), 465–479. <https://doi.org/10.1123/tsp.20.4.465>
- Cense, M., y Brackenridge, C. (2001). Temporal and Developmental Risk Factors for Sexual Harassment and Abuse in Sport. *European Physical Education Review*, 7(1), 61–79. <https://doi.org/10.1177/1356336X010071006>
- Fasting, K., Brackenridge, C., y Sundgot-Borgen, J. (2004). Prevalence of sexual harassment among norwegian female elite athletes inrelation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 39(4), 373–386. <https://doi.org/10.1177/1012690204049804>
- Fasting, K., Chroni, S., Hervik, S. E., y Knorre, N. (2011). Sexual harassment in sport toward females in three european countries. *International Review for the Sociology of Sport*, 46(1), 76–89. <https://doi.org/10.1177/1012690210376295>
- Fasting, K. y Sand, T.S. (2015). "Narratives of sexual harassment experiences in sport". *Qualitative Research in Sport, Exercise and Health* Volume 7 (5), 573-588. Fernández Villarino, R. (2000). Acoso sexual en el trabajo. *Revista Científica, FCV-LUZ*, III(173).
- Gervis, M. y Dunn, N. (2004). "The emotional abuse of elite child athletes by their coaches". *Child Abuse Review* 13, 215–223.
- Leahy, T., Pretty, G., y Tenenbaum, G. (2002). Prevalence of sexual abuse in organised competitive sport in australia. *Journal of Sexual Aggression*, 8(2), 16–36. <https://doi.org/10.1080/13552600208413337>
- Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Horcajo, M., y Pujol, A. (2014). El acoso sexual en el deporte: El caso de las estudiantes-deportistas del grado de ciencias de la actividad física y el deporte de Cataluña. *Apunts*.

Educacion Fisica y Deportes, 115(1), 72–81. [https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.\(2014/1\).115.07](https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.(2014/1).115.07)

Ohlert, J., Seidler, C., Rau, T., Rulofs, B., y Allroggen, M. (2018). Sexual violence in organized sport in Germany. *German Journal of Exercise and Sport Research*, 48(1), 59–68. <https://doi.org/10.1007/s12662-017-0485-9>

Pernas, B., Romás, M., Olza, J., y Naredo, M. (2000) *La dignidad quebrada. Las raíces del acoso sexual en el trabajo*. Madrid: Catarata. Hargreaves, J. A. (1994). *Sporting females. Critical issues in the history and sociology of women's sports*. London: Routledge. 13-14

Pina, A., Gannon, T. A., y Saunders, B. (2009). An overview of the literature on sexual harassment: Perpetrator, theory, and treatment issues. *Aggression and Violent Behavior*, 14(2), 126–138. <https://doi.org/10.1016/j.avb.2009.01.002>

Protocolo anti acoso en el deporte. (2017).

Rhind, D. y Owusu-Sekyere, F. (2018). *International Safeguards for Children in Sport. Developing and Embedding a Safeguarding Culture*. New York. Routledge.

Stirling, A. E. y Kerr, G. A. (2008). "Elite female swimmers' experiences of emotional abuse across time". *Journal of Emotional Abuse* 7 (4), 89-113.

Toftegaard, J. (2001). The forbidden zone: Intimacy, Sexual Relations and Misconduct in the Relationship between Coaches and Athletes. *International Review for the Sociology of Sport*, 36(2), 165–182

Tuakli-Wosornu, Y. A., Sun, Q., Gentry, M., Ona Ayala, K. E., Doolan, F. C., Ottesen, T. D., y Kirby, S. (2020). Non-accidental harms ('abuse') in athletes with impairment ('para athletes'): A state-of-the-art review. *British Journal of Sports Medicine*, 54(3), 129–138. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2018-099854>

Vargas, P. I., Canedo Jr., L., Oliveira, M. E. de, y Capraro, A. M. (2021). O escândalo de abuso sexual na equipe norte-americana : resenha so documentário "Atleta A." *Recorde: Revista de História Do Esporte*, 14(1), 1–5. Retrieved from <https://revistas.ufrj.br/index.php/Recorde/article/view/44512>

4.- ENTRENATZAILEAREN ETA KIROLARIAREN ARTEKO HARREMANAK

4. ENTRENATZAILEAREN ETA KIROLARIAREN ARTEKO HARREMANAK

4.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak

Kapitulu honetan entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak aztertuko ditugu, eta haien arteko portaera onargarrien eta onartezinen arteko muga non dagoen ikusiko dugu. Ildo horretan, harreman horrekin lotutako faktoreak, kiroleko sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena eragin dezaketenak, identifikatuko ditugu. Galdera hauei erantzungo diegu:

Nolakoak dira entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak eta zer lotura dago kiroleko sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren artean?
Zer lotura dago entrenatzailearen lidergo-estiloaren eta sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren artean?

Hauek dira kapitulu honen helburu espezifikoak:

- ✓ Entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak aztertzea.
- ✓ Entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanek kirol-eremuko sexu-jazarpenarekin eta sexuaren ziozko jazarpenarekin duten lotura aztertzea.
- ✓ Entrenatzailearen lidergo-estiloaren eta sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren artean dagoen lotura aztertzea eta zehaztea.

4.2. Boterea, entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanaren abiapuntua

Kirolariak bere entrenatzailearekin duen harremana izaten da, askotan, kirolari batek izaten dituen harreman garrantzitsu eta eraginkorrenetako bat (Cronin et al., 2015). Entrenatzaileek kirolariengan eragin positibo ugari izan ditzaketen arren, sortzen ari den literaturak abusu-arazoak egon daitezkeela ere adierazten du. Izan ere, duela gutxi egindako ikerketek adierazten dute atleten abusu fisikoak, sexualak eta emozionalak jasan ditzaketela (Wilinsky y McCabe, 2020). Gainera, entrenatzailearen boterea abusuzko harremanei bide ematen dien arrisku-faktorea dela uste da. Atletak lehiakorrako bihurtu eta euren ibilbidean aurrera egin ahala, gero

eta denbora gehiago igarotzen dute entrenatzaileekin, eta horrek areagotu egiten du gertakari horiek izateko arriskua (Ohlert et al., 2020).

Hala, Stirling y Kerr (2009)ek bost igerilarirekin eta eliteko lau gimnastarekin egindako azterlanean adierazi dute entrenatzaileak sekulako boterea duela kirolariarengan, eta botere hori kirolariaren bizitzako beste arlo batzuetatik haratago doala askotan, hala nola ikasketetatik, gizarte-bizitzatik eta dietatik haratago.

Ikertzaileek iradoki dutenez, kirolaren kultura, zehazki entrenatzaileak duen boterea, ingurune egokia da sexu-esplotaziorako (Brackenridge, 1997). Beraz, garrantzitsua da entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanetan egokia eta desagokia dena zehaztea (Roberts, Sojo, y Grant, 2020). Ikertzaileek parte-hartzaileei eskatu zietenean bizi izan zituzten sexu-jazarpeneko portaerak adierazteko, ikertzaileek sexu-jazarpen gisa definitutako portaeren berri eman zuten emakume atleten proportzioa % 15etik % 55era artekoa zen (Fasting et al., 2011; Toftegaard, 2001).

Portaera anbigueoz gain, azterlan batzuek sexu-harremanak ere gehitu dizkiete Kirbyk eta beste batzuek (2000) erabilitako galdeketaren barruan aztertu beharreko portaerei. Kanadako talde nazionalako gizon eta emakume atletei buruz egindako azterlan batean parte hartu zuten 266 inkestatuen bosten batek baino zertxobait gehiagok nabarmendu zuten kiroleko harreman intimoak nonahi zeudela (Kirby et al., 2000); kirol-autoritate batekin sexu-harremanak izan zituztela adierazi zuten. Atleta horietatik 15entzat (11 emakume eta 4 gizon) harreman hertsatzaileen zantzu argiak zeuden, autoritate-figurak hitzez ere jazarri baitzituen edo fisikoki eraso egiten baitzien. Kirolari horietatik bosten kasuan (2 emakume eta 3 gizon), sexu-harreman behartuak 16 urte baino gutxiago zituztenean gertatu ziren.

Kirol-eremuarekin lotutako pertsonen arteko gorputz-kontaktua (kirolariak, teknikariak eta abar), oro har, gainerako biztanleena baino desinhibituagoa da, eta ohikoagoa da, kirolariari jarraibideak emateko behar izaten baita kasu askotan. Izan ere, Johansson y Lundqvist (2017)ek egindako azterlanean, kirolari gehienek (% 55-95) adierazi zuten entrenatzailearen konfiantza, hurbiltasuna, entrenatzaileak kirol-errendimenduan duen funtsezko eragina eta kontaktu fisiko hezitzailea direla entrenatzailearen eta atletaren arteko harremanaren faktore nagusiak.

4.1. Sexu-jazarpena eta entrenatzailearen lidergo mota

Newton, Duda eta Yinek (2000) diotenez, entrenatzailearen eginkizunak mesede egin diezaioke berdinen arteko harremanari, dituzten portaeren arabera. Era berean, entrenatzailearen lidergo-estiloa funtsezko beste faktoretako bat izan liteke kirol-testuinguruetan jazarpena prebenitzeko (Poczwadowski, Barott, eta Peregoy, 2002), eta haurren eta gazteen garapen positiboaren giroan ere eragina izan lezake. Entrenatzailearen jarduketak edo entrenatzaileak hartutako eredia jokalarien artean izaten diren pertsonen arteko harremanetan islatuko da, eta horrek eragina izango du kirolari taldearen kohesioan (Jowett eta Chaundy, 2004; Vincer eta Loughhead, 2010). Izan ere, ikusten da zereginetan laguntzean eta indartze positiboan oinarritutako lidergoa duten eta modu autokratikoagoak baztertzten dituzten entrenatzaileek taldekideen artean kohesio-maila handiagoa duten taldeak zuzentzen dituztela (Leo Marcos et al., 2013; Loughhead eta Carron, 2004).

Jokalariez gain, entrenatzailea izan daiteke taldearen liderra. Horri dagokionez, Arrebolak, Martínezek, Ortegak eta Matak (2017) ondorioztatu dutenez, entrenatzaileak jarri diren helburuak lortzera gidatzen du kirolari taldea, eta eragin nabarmena du errendimenduan, baina baita jokalarien ongizate psikologikoan ere. Egile horiek argudiatzen dute funtsezko puntua dela bai talde osoa motibatzeke, bai atleta jakin bat motibatzeke. Beraz, esan daiteke entrenatzailearen lidergoak eragina izango duela kirolean hain garrantzitsuak diren alderdietan, hala nola talde-kohesioan, taldearen konfiantzan, atleten gogobetetasunean eta ongizatean, eta taldearen errendimenduan. Antonakisen arabera (2012), kirol-eremuan entrenatzailea erreferentzia-puntua da talde baten barruan, eta eginkizun garrantzitsua betetzen du kirolarientzat, kirol-arrakastari eta -porrotari dagokienez. Horregatik, entrenatzaileek kirolariei jarraibideak emateko, bideratzeko eta laguntzeko erabiltzen dituzten metodoak asko aztertu diren gaiak dira, Baker et al. (2003)en kasuan ikus daitekeen bezala. Entrenatzaileak kirol-errendimenduaren arrakastan duen eginkizunari buruz hitz egiten denean, entrenatzaile autoritarioa, zorrotza eta kontrolatzailea dela egokiena esaten da. Hori Penman, Hastad, y Cords (1974)en azterlan klasikoan oinarritzen zen batez ere. Entrenatzaile autoritarioaren ohiko portaerak honako hauek dira: atzeraelikadura negatiboa, zuzendaritza-komunikazioa, erabakiak hartzea coachak zuzenduta, zereginetan oinarritutako rolera bideratzea eta errendimendua lortzeko helburura bideratzea (Lyle y Cushion, 2017).

Lidergoari buruzko egungo literaturak lidergoaren ikuspegi holistikoa azpimarratzen du. Ikuspegi horretan, kirolarien beharrak, sentimenduak eta ongizatea hartzen dira kontuan (Jones, Hughes,

y Kingston, 2017). Ondorioz, entrenatzaileak entrenamenduarekiko ikuspegi finkoa izan ordez, ikuspegi malgua izan behar du, kirolariek beren errendimendu-ahalmena guztiz gara dezaten. Pentsamendu-ildo horri eutsiz, azterlanek erakutsi dute hauek direla kirolariek gogokoen dituzten entrenatzailearen lidergo-portaerak: atzeraelikadura positiboa, entrenamendua eta jarraibideak ematea izatea ardatza eta portaera demokratikoak (Stevella et al. 2011). Ondorioz, entrenatzailearen eta atletaren arteko harremanaren zati garrantzitsu bat komunikazioaren kalitatea da, harreman estua eta konfiantzazkoa eraikitzeko funtzio garrantzitsua betetzen duela uste baita (LaVoi, 2007). Autoritarioak ez diren entrenamendu-portaeretan oinarritutako entrenatzailearen eta atletaren arteko harremana, ziurrenik konfiantzazkoa izango dena, kirolarien garapenarekin eta ongizatearekin lotu da (Trzaskoma-Bicsérdy et al. 2007). Hala ere, oraindik ere ikusten da portaera autoritaria ohikoa dela entrenatzaile askoren artean (Jones, Hughes, y Kingston, 2017). Entrenatzaileen portaerak ez dira mota bakar bateko lidergo-estilokoak izaten; normalean, hainbat motatako estilori lotutako askotariko portaerak izaten dituzte. Kirolariekiko elkarrekintzak egoera eta ingurune ugaritan gertatuko dira, eta, beraz, portaera demokratikoak eta autoritarioak izan beharko dira.

Hasiera batean, entrenatzaile batek hainbat motatako botereak ditu, eta botere mota guztiak «botere-kapital» gisa har daitezke. Brackenridge (2001) erreferentziatzen hartuta, entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremana ezaugarritzen duten lau botere mota ikus daitezke. Lehenik eta behin, «posizio-boterea» dago, hau da, taldearen barruan duten postuarengatik edo eginkizunarengatik dagokiena. Kirola eremu maskulinizatua izan ohi denez, orokorrean uste da entrenatzaileek nagusiki gizonezkoak izan behar dutela. Horregatik, emakumezko entrenatzaileek ez dute posizio-botere bera lortuko, entrenatzaile izateko genero-aurreiritziekin bat ez datozelako (Sand et al., 2011).

Bigarrenik, «adituen boterea» dago, hau da, entrenatzaileek, oro har, kirolariek baino ezagutza handiagoak dituzte trebetasun atletikoen garapenari eta errendimenduari dagokienez. Hori entrenatzailearen heziketan, kirol-trebetasunetan eta/edo errendimendu-mailan (aurretikoa) oinarritzen da, eta alderdi horiek, elkarrekin, entrenatzailearen botere aditua osatzen dute. Hori erronka handia da emakumezko entrenatzaileentzat kirol modernoan, eta eragin negatibo orokorra izan dezake atletek emakumezko entrenatzaileen trebetasunei eta ezagutzei buruz dituzten iritzietan. Ondorioz, zailagoa da emakumezko entrenatzaileek botere adituko maila handia lortzea.

Hirugarrenik, «indar fisikoa» oso garrantzitsua da, batez ere emakume atletentzat, gehienak gizonezkoek entrenatzen baitituzte (Acosta y Jean, 2012). Indar fisikoaren batez besteko balioei dagokionez sexuen artean dagoen aldea da horren arrazoia; izan ere, gizon gehienek emakumeek baino indar fisiko handiagoa dute. Eta, azkenik, «genero-boterea» dago, gure gizarte modernoaren genero-ordenarekin lotzen dena; izan ere, gizarte modernoan gizonek generoaren arabera kultura-ordena bati eusten diote, non gizonek emakumeen gaineko kultura-nagusitasuna izaten jarraitzen duten (Sand et al., 2011).

Duela urte batzuk, Brackenridge (2002)k adierazi zuen entrenatzaileen portaera autoritarioa, entrenatzaileek gauzatzen dituzten botere mota desberdinekin elkartzen denean, sexu-jazarpena izateko arrisku-faktoretzat har litekeela berez. Fasting y Brackenridge (2009)ek egindako azterlan kualitatibo batek zati batean berretsi zuen hori; «entrenatzaile autoritarioa» entrenatzaile jazarleen hiru mota nagusietako bat zen, entrenatzaileen sexu-jazarpena jasan zuten emakume atletei egindako elkarrizketetan oinarrituta.

Ilido berean, Sandek eta beste batzuek (2011) entrenatzaileek izandako portaera autoritarioen eta eragindako sexu-jazarpenaren inguruko esperientziei buruz galdetu zieten kiroleko eta gizarte-hezkuntzako 17 urtetik 45 urtera bitarteko 399 emakumezko ikasleri (Txekiar Errepublika n = 141, Grezia n = 104, Norvegia n = 155). Portaera autoritarioen inguruko esperientziak lau galderen bidez neurtu ziren, eta coaching autoritarioko portaera-adierazleak hartu ziren kontuan. Ikasle horiei galdetu zieten entrenatzaileen portaera mota hauek bizi izan ote zituzten: «hizkuntza gogorra», «dena entrenatzaileak bakarrik erabakitzea», «kirolariei oihu egitea» edo «kirolariak presionatzea». Ikasleei eskatu zieten marka zezatela portaera mota bakoitza gizonzko entrenatzaile batek edo emakumezko entrenatzaile batek eraginda bizi izan zuten. Ikasle batek lau portaerak markatzen bazituen, «entrenatzaile autoritarioaren portaerak bizi izan» balitu bezala puntuatzen zuen. Azterlanean ez zen jaso esperientziak zenbateko maiztasunez, zenbat aldiz edo zenbat denboraz gertatu ziren, baizik eta ikasleak coaching autoritarioaren lau jokabide motak bizi izan zituen ala ez. Galdera bakar batean ere ez zen sexu-jazarpena zehazki aipatu.

Era berean, sexu-jazarpenari dagokionez, honako egoera hauek izan ote zituzten ikertu zuten: gogoz kontrako kontaktu fisikoa, gorputz-kontaktua (adibidez, zimikoak, besarkadak, laztanak, gogoz kontrako musuak, etab.), sexu-asmoko gogoz kontrako begiradak, iruzkinak, isekak eta txantxak behin eta berriz beren gorputzari, arropari edo bizitza pribatuari buruz, edo beren kirol-errendimendua eta neskak berak atleta gisa barregarri uztea beren generoarengatik edo

sexualitatearengatik (adibidez, «futbola ez da neskentzat»). Ikasleei eskatu zieten ekintza hori egin zuen pertsonaren ezaugarriak marka zitzatela (gizonezko entrenatzailea, emakumezko entrenatzailea, taldekidea/atleta, kiroleko zuzendaritza-taldeko kide bat, familiako kide bat, kirolek kanpoko beste pertsona batzuk eta abar).

Galderak bi aldiz egin zitzaizkien, gizonen eta emakumeen esperientziak etiketatzeko, hurrenez hurren. Ikasle batek gizonezko entrenatzaile batek eragindako esperientzia bat markatzen bazuen, gizonezko entrenatzaile batek egindako sexu-abusuko esperientziatzat hartzen zen. Emaitzetan ikusi zen, entrenatzaileek izandako portaera autoritarioetako esperientziei dagokienez, desberdintasun nabarmena izan zela bi generoen artean. Ikasleen % 20k gizonezko entrenatzaileen portaera autoritarioak bizi izan zituzten; aitzitik, % 5ek bakarrik bizi izan zituzten emakumezko entrenatzaileenak. Gizonezko eta emakumezko entrenatzaileen sexu-jazarpeneko esperientziei dagokienez ere desberdintasuna nabarmena izan zen. Parte-hartzaileen artean, % 20k bizi izan zuten gizonezko entrenatzaileak eragindako sexu-jazarpena; aitzitik, % 6k bakarrik bizi izan zuten emakumezko entrenatzaileak eragindakoa.

Ikusten da joera argia dagoela entrenatzaileen jokabide autoritarioak bizi izan zituzten parte-hartzaileen artean sexu-jazarpeneko esperientzien prebalentzia handiagoa izateko, esperientzia horien berri eman ez zutenen aldean. Gizonezko entrenatzaileen portaera autoritarioak bizi izan zituztenetatik, % 32k gizonezko entrenatzaileak eragindako sexu-jazarpena ere bizi izan zuten. Aitzitik, % 18k bakarrik bizi izan zuen sexu-jazarpena gizonezko entrenatzailearen portaera autoritarioak inoiz bizi izan ez zituztenen artean. Emakumezko entrenatzaileekin izandako esperientziei dagokienez, portaera autoritarioak bizi izan zituztenen % 25ek bizi izan zuten sexu-jazarpena ere. Aitzitik, % 6k ez zuen inoiz mota horretako esperientziarik bizi izan entrenatzaile autoritario batekin. Ondorio gisa, ikus daiteke portaera autoritarioen eta sexu-jazarpenaren prebalentziak askoz ere handiagoak zirela gizonezko entrenatzaileen kasuan. Eta portaera autoritarioak bizi izan zituzten parte-hartzaileen kasuan gizonezko entrenatzaileek eragindako sexu-jazarpeneko esperientzien prebalentzia handi hori, portaera autoritariorik bizi izan ez zituztenekin alderatuta, gizonezko entrenatzaileekin eta emakumezko entrenatzaileekin gertatzen zen. Horrek adierazten du portaera autoritarioak «iragarle» garrantzitsuak izan daitezkeela sexu-jazarpeneko esperientziak hautemateko, entrenatzailearen generoa edozein izanda ere.

4.2. Entrenatzailearen portaera onargarria eta onartezina

Nazioarteko Olinpiar Batzordearen emakumeen aurkako kirol-arloko sexu-jazarpenari eta -abusuari buruzko dokumentuen laguntzari esker, Europako beste herrialde batzuetan argitaratutako zenbait giden azterketari esker (Norwegian Olympic, Paralympic Committee eta Confederation of Sports, 2010) eta nazioarteko esparru akademiko eta medikoko adituek egindako azterlanetatik ateratako datuei esker (Roberts, Sojo, y Grant, 2020), egoera, jarrera eta portaera onartezinak identifikatu dira. Egoera, jarrera eta portaera onartezinak hiru multzotan identifikatu dira. Multzo horiek entrenatzailearen eta kirolariaren artean ezartzen den harremanaren hainbat alderdi biltzen dituzte. Lehenengo multzoa orokorra da eta harreman duala barne hartzen du, eta garrantzi berezia du kirolari adingabearen kasuan; bigarrenak hitzeko eta ez-hitzezko komunikazioari egiten dio erreferentzia; hirugarrenak, kontaktu fisikoari. Jarraian, hiru multzoak deskribatuko ditugu:

4.2.1. Harreman dualak: zer ez duen egin behar entrenatzaileak

- ✓ Galdera deserosoak egitea kirolariari bere bizitza pribatuari buruz, kirol-jarduera egoki egiteko hutsala den informazioa lortzeko asmoz.
- ✓ Kirolariari bere bizitza sexualari buruzko galderak egitea.
- ✓ Kirolariaren bizitza pribatuan sartzea: presioa egitea informazioa lortzeko, kirolariaren bizitzari buruzko nolabaiteko kontrola izateko edo jarduera eta harreman pertsonalei buruz entrenatzaileak duen irizpidea ezartzen saiatzeko.
- ✓ Kirolariari telefono-deiak egitea etengabe.
- ✓ Kirolariaren bizitza pribatua kontrolatzea, bere babesle izan nahian.
- ✓ Une oro non dagoen eta zer jarduera egiten dituen jakiteko informazioa eskatzea.
- ✓ Kirolariaren bila joatea ikastetxetik edo lanetik irteten denean.
- ✓ Itxuraz ustekabekoak diren elkartzeak sorraraztea kirol-testuingurutik kanpo.
- ✓ Duxa eta aldagelak partekatzea kirolariek.
- ✓ Kirolarien aldageletan sartzea baimenik eskatu gabe.
- ✓ Aldageletan egotea.
- ✓ Sexu-izaerako proposamen, gonbidapen eta kitzikapen esplizituak egitea.
- ✓ Alkoholaren kontsumoa sustatzea edo baimentzea kirolariek lehiatzeko egiten dituzten bidaietan: garraiobideetan, batez ere lehiaketatik itzultzeko bidaietan. Lehen ondoren, batez ere garaipen bat ospatzeko. Jaietan, zeremonietan, harreretan eta bestelako ekitaldi ofizialetan.

Azurmendiren eta Fontecharen hitzetan (2015), lehen aipatutako sexu-jazarpeneko eta -abusuko egoera orokorrek garrantzi berezia hartzen dute entrenatzailearen eta kirolari baten arteko elkartzeetan, kirolari baten eta bere entrenatzailearen arteko harreman afektiborik ez ezartzea azpimarratzen da, baina hori gertatzen denean, harremana pertsona helduen artekoa eta elkarrekikoa bada, egoera argi eta garbi azaldu eta argitu behar da, bai taldearekin, bai hurbileko kirol-ingurunearekin (kluba edo federazioa).

4.2.2. Hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioa

Hitzeko komunikazioan oldarkorra izatea (irainak, hitz zantarrak, esapide sexistak, sexu-konnotazio argia duten aipamenak eta abar) kirolaren zatitzat hartzen da. Goi-mailako kirolek kopiatutako portaera da, jarduera-maila guztietan aplikatzen dena, baita eskola-adineko kirolean ere (Roberts, Sojo, y Grant, 2020). Portaera horiek biztanleriaren sektore handi batek kirola arbuiatzea eragiten dute. Entrenatzaile batzuek hizkuntza sexista erabiltzen dute kirolariekin komunikatzeko, hitz zantarrak edo emakumeekiko mespretxuzko esaldi umiliagarriak ez ezik, sexu-konnotazio argia dutenak ere erabiliz. Gainera, esapideekin batera estilo oldarkor eta gutxiesgarria, oihuak, irainak eta larderiak agertzen badira, botere- eta mendetasun-harremana adierazten dute (Azurmendi y Fontecha, 2015).

Saihestu behar diren hitzeko esapideetatik, honako hauek dira ohikoenak:

- ✓ Emakumeak oro har barregarri uzten dituzten iruzkin sexistak.
- ✓ Emakumezko kirolarien jarduera zalantzan jartzen duten edo barregarri uzten duten iruzkin sexistak, emakume-izaera aipatuz.
- ✓ Emakumezko kirolariaren gorputzeko alderdiren edo ezaugarriren bati buruzko iruzkin mespretxuzkoak edo desegokiak (pisua, forma, gorputz-atal baten tamaina eta abar).
- ✓ Kirolariaren janzteko eta apaintzeko moduari buruzko iruzkin mespretxuzkoak edo desegokiak.
- ✓ Hitz zantarrak, biraoak eta izaera sexual eta sexistako esapideak.
- ✓ Gorputz-ezaugarriei buruzko izaera sexualeko adierazpenak edo iruzkinak.
- ✓ Janzteko eta apaintzeko moduari buruzko izaera sexualeko adierazpenak edo iruzkinak.
- ✓ Esapide, txantxa eta iritzi homofoboak edo lesbofoboak, orokorrak edo sexu-orientazioari buruzkoak.
- ✓ Esapide oldarkorrak, ondoeza eragiten dutenak eta aurkako giroa sortzen dutenak.

- ✓ Esapide oldarkorrek, beldurra edo ikara eragiten dutenak, eta nagusikeria adierazten dutenak.
- ✓ Sexu-konnotazioak dituzten zirikadak edo irainak.
- ✓ Zuzenketa taktiko eta tekniko zakarrak, hitz zantarrak eta irainak erabiliz, bai lehiatzen ari direnean, bai entrenamendu-saioetan.
- ✓ Sexu-proposamenen bidez eragindako hitzezko larderia.

Ez-hitzezko komunikazioari dagokionez, honako hauek izango lirateke jokabideak (Azurmendi y Fontecha, 2015):

- ✓ Begirada lizunak edo kirolari bati adi-adi begira geratzea sexu-konnotazioarekin.
- ✓ Sexu-konnotazioa duten txistuak.
- ✓ Keinuak, intsinuazioak eta mugimenduak: aurpegiarekin edo gorputzarekin egindako sexu-adierazpenak.
- ✓ Irudi pornografikoak edo eduki sexuala duten objektuak erakustea.
- ✓ Kirolariarekin bideo edo film erotiko-pornografikoak ikustea edo horrelakoak uztea kirolariari.
- ✓ Teknologia berrien erabilera desegokia:
 - Kirolariari behar ez diren mezuak eta/edo mezu deserosoak bidaltzea berehalako komunikaziorako aplikazioen bidez.
 - Kirolariaren borondatearen aurka, mezuak bidaltzea sare sozialen bidez edo horietan jarraitzaile izatea.
 - Behin eta berriz dei galduak egitea.
 - Eduki sexuala duten mezu elektronikoak bidaltzea.

4.2.3. kontaktu fisikoa

Gorputz-kontaktuari buruz hitz egitean, esan behar da kirol-eremuan dagoen giro desinhibitua ona eta desiragarria dela, bai kirola egin bitartean, bai gogo-aldarteak adierazteko. Gainera, egia da kirolariek beren gorputz biluzia naturaltasunez erakusten dutela dutxa edo aldagelak partekatzen dituztenean, baina ez da inoiz era okerrean interpretatu behar, kirolariek askatasun osoz erabaki baitezakete beren gorputza nork eta noiz ukitu dezakeen, eta noraino (Roberts, Sojo, y Grant, 2020). Horrenbestez, inork ezin du askatasun handiko giro hori bere gabezia edo behar afektiboak, edo sexu-beharrak, asetzeko erabili. Hori dela eta, mugak ezarri behar dira: batetik, egokia dena eta estortsio-kasu arinak bereizteko, eta bestetik, sexu-jazarpenarekin eta -

abusuarekin erlazionatutako ekintzen larritasun-maila desberdinak zehazteko. Jarraian, Azurmendi eta Fontecharen arabera (2015) onartezinak diren ekintzen zerrenda emango dugu.

- ✓ Hurbiltasun handiegia eta desegokia: emakumezko kirolariaren borondatearen kontrako gorputz-kontaktua, besarkadak, estutzeak eta gorputz-hurbilketak.
- ✓ Gorputzeko hainbat atal ukitzea: ipurmasailak, bularrak, genitalak eta abar.
- ✓ Zimikoak eta zaplada arinak.
- ✓ Besarkada batekin hurbilaraztea, eta ondoren musu ematen saiatzea.
- ✓ Derrigorrean musu ematea.
- ✓ Baimendu gabeko sexu-harremanak.
- ✓ Bortxaketa-saiakera.
- ✓ Bortxaketa.

4.3. Erreferentziak

Baker, J., Horton, S., Robertson-Wilson, J., eta Wall, M. (2003). Nurturing sport expertise: factors influencing the development of elite athlete. *Journal of Sports Science and Medicine*, 2, 1–19.

Brackenridge, C. (2002). Spoilsports (understanding and preventing sexual exploitation in sport): *British Journal of Sports Medicine*, 36(4), 311–311. <https://doi.org/10.1136/bjism.36.4.311>.

Brackenridge, C. (1997). He owned me basically... Womens' Experience of Sexual Abuse in Sport. *International Review for the Sociology of Sport*, 32(2), 115–130.

Cronin, L. D., Arthur, C. A., Hardy, J., eta Callow, N. (2015). Transformational leadership and task cohesion in sport: The mediating role of inside sacrifice. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 37(1), 23–36. <https://doi.org/10.1123/jsep.2014-0116>.

Azurmendi, A. eta Fontecha, M. (2015). *Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak*. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Fasting, K., eta Brackenridge, C. (2009). Coaches, sexual harassment and education. *Sport, Education and Society*, 14(1), 21–35. <https://doi.org/10.1080/13573320802614950>.

- Fasting, K., Chroni, S., Hervik, S. E., eta Knorre, N. (2011). Sexual harassment in sport toward females in three european countries. *International Review for the Sociology of Sport*, 46(1), 76–89. <https://doi.org/10.1177/1012690210376295>.
- Hernández-Mendo, A. eta Canto, J. M. (2005). El liderazgo en los grupos deportivos. In Hernández-Mendo, A. (Koord.), *Psicología del Deporte (I. Lib.): Fundamentos 2*. Wanceule.
- Jones, R., Hughes, M., eta Kingston, K. (2017). An introduction to sports coaching. In *Routledge*.
- Jowett, S., eta Chaundy, V. (2004). An investigation into the impact of coach leadership and coach-athlete relationship on group cohesion. *Group Dynamics*, 8(4), 302–311. <https://doi.org/10.1037/1089-2699.8.4.302>.
- LaVoi, N. M. (2007). Expanding the Interpersonal Dimension: Closeness in the Coach-Athlete Relationship: A Response to the Commentary by Sophia Jowett. *International Journal of Sports Science & Coaching*, 2(4), 519–521. <https://doi.org/10.1260/174795407783359704>.
- Leo Marcos, F. M., Antonio, P. A., Sánchez-Oliva, D., Amado, D. A., eta García, T. (2013). El liderazgo y el clima motivacional del entrenador como antecedentes de la cohesión y el rol percibido en futbolistas semiprofesionales. *Revista de Psicología Del Deporte*, 22(2), 361–370.
- Loughead, T. M., eta Carron, A. V. (2004). The mediating role of cohesion in the leader behavior-satisfaction relationship. *Psychology of Sport and Exercise*, 5(3), 355– 371. [https://doi.org/10.1016/S1469-0292\(03\)00033-5](https://doi.org/10.1016/S1469-0292(03)00033-5).
- Lyle, J., & Cushion, C. (2017). *Sport coaching concepts: A framework for coaching practice*. Routledge.
- Newton, M., Duda, J. L., eta Yin, Z. (2000). Examination of the psychometric properties of the perceived motivational climate in sport questionnaire-2 in a sample of female athletes. *Journal of Sports Sciences*, 18(4), 275–290. <https://doi.org/10.1080/026404100365018>.
- Penman, K. A., Hastad, D. N., eta Cords, W. L. (1974). Success of the authoritarian coach. *Journal of Social Psychology*, 92(1), 155–156. <https://doi.org/10.1080/00224545.1974.9923088>.
- Poczwadowski, A., Barott, J. E., eta Jowett, S. (2006). Diversifying approaches to research on athlete-coach relationships. *Psychology of Sport and Exercise*, 7(2), 125–142. <https://doi.org/10.1016/j.psychsport.2005.08.002>.

- Roberts, V., Sojo, V., eta Grant, F. (2020). Organisational factors and non-accidental violence in sport: A Systematic Review». *Sport Management Review*, 23(1), 8–27. <https://doi.org/10.1016/j.smr.2019.03.001>.
- Ros, J. A. (2006). Análisis de roles de trabajo en equipo: un enfoque centrado en comportamientos (Vol. 120).
- Sand, T. S., Fasting, K., Chroni, S., eta Knorre, N. (2011). Coaching behavior: Any consequences for the prevalence of sexual harassment? *International Journal of Sports Science and Coaching*, 6(2), 229–241. <https://doi.org/10.1260/1747-9541.6.2.229>.
- Stevela, S., Noruega, K. F., Stilian, C., eta Knorre, N. (2011). Sports Science & Coaching. *Sport Science and Coaching*, 6(2), 229–241.
- Stirling, A., eta Kerr, G. (2009). Abused athletes' perceptions of the coach-athlete relationship. *Sport in Society*, 12(2), 227–239. <https://doi.org/10.1080/17430430802591019>.
- Toftegaard, J. (2001). THE FORBIDDEN ZONE: Intimacy, Sexual Relations and Misconduct in the Relationship between Coaches and Athletes. *International Review for the Sociology of Sport*, 36(2), 165-182.
- Trzaskoma-Bicsérdy, G., Bognár, J., Révész, L., eta Géczy, G. (2007). The Coach-Athlete Relationship in Successful Hungarian Individual Sports. *International Journal of Sports Science & Coaching*, 2(4), 485–495. <https://doi.org/10.1260/174795407783359759>.
- Vincer, D. J. E., eta Loughhead, T. M. (2010). The relationship among athlete leadership behaviors and cohesion in team sports. *Sport Psychologist*, 24(4), 448–467. <https://doi.org/10.1123/tsp.24.4.448>.

5.- SEXU-JAZARPENAREN ONDORIOAK KIROL- JARDUERAN

5. SEXU-JAZARPENAREN ONDORIOAK KIROL-JARDUERAN

5.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak

Kapitulu honetan sexu-jazarpenaren edo sexuaren ziozko jazarpenaren ondorioak aztertuko ditugu, ondorio psikologikoak, emozionalak eta fisikoak kontuan hartuta. Ikerketa-galdera honi erantzungo diogu:

Zeintzuk dira kirol-eremuko sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpenaren ondorioak?

Kapitulu honetarako, helburu espezifiko hauek proposatu ditugu:

- ✓ Sexu-jazarpenaren edo sexuaren ziozko jazarpenaren ondorio motak aztertzea, baita kirol-eremuan sexu-jazarpenera edo sexuaren ziozko jazarpenera gertatu ondoren biktimek dituzten sintomak ere.

5.2. Sexu-jazarpenera edo sexuaren ziozko jazarpenak eragindako inpaktu edo ondorio motak

Nahitako indarkeriak kirolariengan dituen ondorio pertsonalak epe luzerakoak eta oso kaltegarriak izan daitezke (Cense y Brackenridge, 2001). Esperientzia horien eragina zabaldu egiten da eta familiei, lagunei, adiskideei eta taldekideei eragiten die, etxean, lanean eta aisialdiko lekuetan. Inpaktuek luzaroan iraun dezakete kirolariak bere kirol-eginkizuna utzi ondoren ere (Tuakli-Wosornu et al., 2020). Kiroleko nahitako indarkeriak ondorio larriak izan ditzake kirolarien osasun fisikoan, sozialean eta psikologikoan ere. Kirolariek antsietate- eta depresio-sentimenduak, autoestimu baxua eta gorputz-irudiari buruzko pertzepzio negatiboa izaten dute; horrez gain, kirola utzi ere egiten dute (Fasting, Brackenridge, y Walseth, 2002).

Kiroleko eta kirolek kanpoko sexu-jazarpenaren ondorio fisikoak ondorio psikologikoak baino errazago hautematen dira, agerikoagoak baitira. Egoera horiek bizi izan dituen kirolariak kezka mediko eta somatizatzaile batzuk adieraz diezazkioke kirol-medikuari. Erreakzio fisikoen artean daude buruko minak, letargia, loaren nahasmenduak, pisu-gorabeherak eta orokorrean osasunarekiko gogobetetze txikiagoa izatea (Sand et al., 2011). Bereziki larriak dira haur

kirolarientzat edo kirolari nerabeentzat, beren bizitza-etapari lotutako hazte- eta heltze-prozesuak direla eta.

Bestalde, ondorio psikologikoak ez dira hain ikusgarriak; kezka horiek hautemateko, jakin behar dugu arazo horiek kirolaren arloan gertatzen direla, eta adi egon behar dugu izan ditzakeen ondorioei. 5. taulan, kirolean eta kirolek kanpo izandako sexu-jazarpenaren eta -abusuaren ondorioz gerta daitezkeen ondorio psikologikoak deskribatuko ditugu. Honako hauek dira gehien ikus daitezkeen sintoma psikologikoetako batzuk: pisua galtzea edo irabaztea, enuresia, kalte fisikoak eragiten dituzten portaerak eta sexu-transmisiozko infekzioak. Gainera, kanpoko seinaleak hauek izan daitezke: arriskuko jarduerak edo nork bere burua zauritzeko jarduerak (adibidez, gehiegizko dietak edo betekadak, preserbatiboaren erabilera mugatua) edo bestelako arazo sozialak edo portaera-arazoak, baita besteei emandako tratuan ere (adibidez, etxeko animaliei, taldekideen aurkako jazarpena) (ikus 5. taula). Kirolean sexu-jazarpena edo -abusua bizi izan dutenek pertsonen arteko harreman txarrak eta konfiantza-zailtasunak ere izan ditzakete, hala nola arazoak bikotekidearekin (Marks, Mountjoy, y Marcus, 2012).

5. taula. Ondorio psikologikoak eta sexu-abusua (Marks, Mountjoy, y Marcus, 2012).

Sintomak	
Ondorio fisikoak eta psikologikoak	Pisua galtzea edo irabaztea
	Ohea bustitzea
	Nekea edo jardueraren jaitsiera
	Sexu-transmisiozko infekzioak
Portaera auto-kaltegarriak	Gutxiegi edo gehiegi jatea
	Larruazala ebakitzea edo larruazalean kalte egitea
	Ilea tiraka ateratzea
Beste pertsona batzuei kalte egitea	Maskotak
	Ikaskideak edo bizilagunak
	Ahaideak
	Bullying egitea taldekideei
Suizidioa	Suizidatzeko burutazioak edo pentsamenduak
	Suizidatzea
Depresio klinikoa	Gogo-aldarte tristea edo suminkorra
	Interesa galtzea
	Aldaketak janguran
	Aldaketak lo-ohituretan

	Kontzentrazioa jaiste
	Energia galtzea
	Ezintasuna
	Etsipena
ANTSIETATEA ETA NAHASMENDUAK	Estres fisikoa
	Amesgaiztoak
	Nahasmendu obsesibo-konpultsiboa
	Trauma osteko estresaren nahasmendua
	Hiperzaintza

Haurren sexu-abusuaren ondorioei buruz Cantón-Cortés y Cortés, (2015)ek egindako azterketak erakutsi du sexu-abusuaren aurreko sexu-jazarpenak areagotu egiten duela osasun mentaleko arazoak izateko arriskua. Ildo horretan, sexu-abusua jasan dutenek askotan esaten dute depresio klinikoaren sintomak dituztela eta suizidio-ideien tasa handiagoak dituztela. Depresioaz gain, pertsonak jakinarazi dute sexu-jazarpenaren edo sexu-abusuaren ondoren antsietate-tasak eta antsietate-nahasmenduak areagotu egin direla. Tartean, trauma osteko estresaren nahasmendu akutua, amesgaiztoak eta hiperzaintza eta portaera eta/edo nahasmendu obsesibo-konpultsiboak eragiten dituena. Era berean, sexu-abusu batek eragin negatiboak izan ditzake autoestimuan eta gorputz-irudian, eta elikadura-nahasmendu baten gara daiteke.

Jarraian, Fasting et al. (2002) y Mountjoy et al. (2016en arabera, sexu-jazarpenak eta -abusuak pairatzen dituzten emakumezko kirolarien osasun integralean eta bizitzan jazarpen eta abusu horiek eragiten dituzten ondorio larriak zerrendatuko ditugu. Kirolaren medikuntzaren eta kirolaren soziologiaren eremuetan egindako ikerketetan identifikatutako datuak eta Nazioarteko Olinpiar Batzordeak eta Norvegiako Olinpiar Batzordeak emandako informazioa bildu ditugu (Azurmendi y Fontecha, 2015).

- ✓ Estresarekin lotutako antsietatea eta erreakzio fisikoak.
- ✓ Amesgaiztoak edo gaueko izuak.
- ✓ Ohea bustitzea.
- ✓ Sexu-transmisiozko infekzioak.
- ✓ Elikadura-nahasmenduak, pisua nabarmen irabazi edo galtzen denean.
- ✓ Nahasmendu edo portaera obsesibo-konpultsiboak.
- ✓ Hiperzaintzapean egotearen ideia paranoideak.
- ✓ Trauma osteko nahasmendu nabarmena eta kronikoa.

- ✓ Hira-, sumingarritasun- eta nahasketa-sentimenduak.
- ✓ Lotsa-sentimendua.
- ✓ Gorputz-irudiari buruzko pertzepzio negatiboa.
- ✓ Autoestimua eta autokonfiantza baxuak.
- ✓ Norberaren kirol-errendimenduaren gaineko gogobetetasuna gutxitzea.
- ✓ Kirol-errendimendu baxua.
- ✓ Kirol-jarduera egiteko edo jardueran parte hartzeko motibazioa gutxitzea.
- ✓ Kirol-jarduera bertan behera uztea.
- ✓ Depresio klinikoa: Umorea (triste, haserrekor egotea).
- ✓ Interesa galtzea (anhedonia).
- ✓ Aldaketak janguran.
- ✓ Insomnioa eta aldaketak lo-ohituretan.
- ✓ Kontzentrazioa gutxitzea.
- ✓ Erru-sentimendua.

Atal hau amaitu aurretik, ezin dugu ahaztu beharrezkoa dela aipatzea zer garrantzi duen birbiktimizazioak edo bigarren mailako biktimizazioak eta bigarren mailako sexu-jazarpenak, kiroleko sexu-jazarpenak edo sexuaren ziozko jazarpenak eragindako ondorioei dagokienez. Birbiktimizazioa edo bigarren mailako biktimizazioa indarkeria-egoerak, berriro ere sexu-jazarpenaren biktimari eragiten diotenak, errepikatzea da, kasu honetan modu sinbolikoan eta kirol-erakundeen aldetik. Ildo horretan, birbiktimizazioa indarkeria instituzionaltzat har liteke, biktimari emandako laguntza desagokia edo nahikoa ez delako (Mateo, 2016). Ildo beretik, bigarren mailako sexu-jazarpena emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzen dieten pertsonen jasandako jazarpena da (Flecha, 2018; Liebst et al., 2018). Jazarpena pairatzeko bi modu horien inguruan seriozki hausnartu behar da; izan ere, jasotako tratu txarretik bizirik atera diren pertsonen eta haien alde egin zuten inguruko pertsonen antzeko arriskua dute birbiktimizatzeko (Seanor, 2021).

5.3. Erreferentziak

- Calle, S. (2004). Consideraciones sobre la victimización secundaria en la atención social a las víctimas de la violencia de género. *Portularia*, 4, 61-66.
- Cantón-Cortés, D., eta Cortés, M. R.-. (2015). Consecuencias del abuso sexual infantil: una revisión de las variables intervinientes. *Anales de Psicología*, 31(2), 552–561. Retrieved from papers3://publication/uuid/41533B70-B23E-4932-8B35-BD4DB9AACCD7
- Cense, M., eta Brackenridge, C. (2001). Temporal and Developmental Risk Factors for Sexual Harassment and Abuse in Sport. *European Physical Education Review*, 7(1), 61–79. <https://doi.org/10.1177/1356336X010071006>
- Azurmendi, A. eta Fontecha, M. (2015). *Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak*. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Fasting, K., Brackenridge, C., eta Walseth, K. (2002). Consequences of sexual harassment in sport for female athletes. *Journal of Sexual Aggression*, 8(2), 37–48. <https://doi.org/10.1080/13552600208413338>
- Flecha, R. (2021). Second-order sexual harassment: Violence against the silence breakers who support the victims. *Violence against women*, 27(11), 1980-1999.
- Liebst, L.S., Heinskou, M. B., eta Ejbye-Ernst, P. (2018). On the actual risk of bystander intervention: A statistical study based on naturally occurring violent emergencies. *Journal of Research in Crime and Delinquency*, 55(1), 27–50. <https://doi.org/10.1177/0022427817710776>
- Marks, S., Mountjoy, M., eta Marcus, M. (2012). Sexual harassment and abuse in sport: The role of the team doctor. *British Journal of Sports Medicine*, 46(13), 905–908. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2011-090345>
- Mateo, G. M. (2016). Las violencias machistas en la historia de vida de las mujeres institucionalizadas. *Journal of Feminist, Gender and Women Studies*, 41(4), 41-49.
- Sand, T. S., Fasting, K., Chroni, S., eta Knorre, N. (2011). Coaching behavior: Any consequences for the prevalence of sexual harassment? *International Journal of Sports Science and Coaching*, 6(2), 229–241. <https://doi.org/10.1260/1747-9541.6.2.229>

- Seanor, M. (2021). *Stories of athlete maltreatment and revictimization: media data from three elite gymnastics teams* (Doctoral dissertation, Laurentian University of Sudbury).
- Mountjoy, M., Brackenridge, C., Arrington, M., Blauwet, C., Carska-Sheppard, A., Fasting, K., et al., Budgett, R. (2016). International Olympic Committee consensus statement: Harassment and abuse (non-accidental violence) in sport. *British Journal of Sports Medicine, 50*(17), 1019–1029. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2016-096121>
- Tuakli-Wosornu, Y. A., Sun, Q., Gentry, M., Ona Ayala, K. E., Doolan, F. C., Ottesen, T. D., et al., Kirby, S. (2020). Non-accidental harms ('abuse') in athletes with impairment ('para athletes'): A state-of-the-art review. *British Journal of Sports Medicine, 54*(3), 129–138. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2018-099854>

6.- KIROL-ERAKUNDEETAN ERABILTZEN DIREN NEURRIAK SEXU-ABUSUA PREBENITZEKO

6. KIROL-ERAKUNDEETAN ERABILTZEN DIREN NEURRIAK SEXU-ABUSUA PREBENITZEKO

6.1. Sarrera: helburuak eta galdera nagusiak

Kapitulu honetan, kirol-eremuko sexu-jazarpena eta sexu-abusua eta sexuan oinarritutako abusua prebenitzeko literatura zientifikoan dauden neurriak aztertuko ditugu. Era berean, neurri horiek aplikatzean, eta prebentzio-mailen arabera, gutxitu litezkeen arriskuak azalduko ditugu. Ikerketa-galdera honi erantzungo diogu:

Zer neurri har daitezke antolakunde publiko eta pribatuetan kirol-eremuko sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena prebenitzeko?

Kapitulu honetarako, helburu espezifiko hauek proposatzen ditugu:

- ✓ Kirol-erakundeek ezarritako prebentzio-politika baten bidez gutxitu daitezkeen arriskuak aztertzea.
- ✓ Kirol-klubek sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena prebenitzeko duten konpromisoa aztertzea.

6.2. Kirol segurua

Atletei egindako abusuen nazioarteko kasuen ondorioz, «kirol segurua» deritzona sustatzeko ahaleginak egin dira. Kirolaren arloan nazioartean agertutako abusuen eskandalu ugariaren ondorioz, (esate baterako, Nassar kasua Estatu Batuetan eta Barry Bennell kasua Erresuma Batuan), kirol-agintariek babesak prestatu eta aplikatu behar izan dituzte (Nite y Nauright, 2020). Gure ingurune hurbilenean, Basauriko Baskonia Futbol Eskolako, Deustuko Salestarren Ikastetxeko eta Easo Saskibaloia Klubeko kasuak, besteak beste, gertaera tristeak izan dira gizarteko, kiroleko eta kirolek kanpoko eragileak konturatzeko gai horretan esku hartu behar dela.

Estatuko eta nazioarteko kirol- eta entrenamendu-erakundeek ekimenak (hala nola Gurgis eta Kerr Advancing Safe Sport programak) eta hezkuntza-politikak prestatu dituzte abusurik eta

jazarpenik gabeko kirol seguruaren kultura sustatzeko. Adibidez, Safe Sport International⁴ (2019) erakundeak, edozein adinetako atleten aurka egindako mota guztietako abusuak, jazarpenak eta indarkeriak mundu osoan desagerrarazteko konpromisoa duen nazioarteko lankidetzakerakundeak, gaurkotasuneko ikerketak, aholkularitza-zerbitzuak eta hezkuntza-mintegiak eskaintzen ditu (web bidez), alderdi interesdunen eta erakundeen arteko babes-neurriak hobetzeko. Kanadako Entrenatzaileen Elkarteak (2020) prestakuntza eta baliabideak eskaintzen ditu Kanadako entrenatzaileen garapena bultzatzeko; horrez gain, segurtasunean oinarrituta eta etikan ardaztuta dauden prestakuntza-programa eta kontzientziazio-politika ugari ditu garuneko kommozioen arloan nahiz tratu txarrean. Beste erakunde batzuk, hala nola Estatu Batuetako Kirol Segururako Zentroa (2020), Erresuma Batuko Kirolean Haurrak Babesteko Unitatea (2020), Australiako Play by the Rules (2020) eta Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2020), beren ikuspegiak aplikatzeaz arduratzen dira kiroleko segurtasunean aurrera egiten saiatzeko. Erakunde horiek eginkizun eta erantzukizun desberdinak dituzte kirol seguruari dagokionez. Australiako Play by the Rules elkarteak⁵, adibidez, informazioa, baliabideak, tresnak eta doako trebakuntza ematen ditu online (web-orria), administratzaile, entrenatzaile, ofizial, jokalaria, guraso eta ikusleen gaitasuna handitzeko, kiroleko diskriminazioa, jazarpena, haurren segurtasuna, inklusioa eta osotasuna prebeni ditzaten eta horiei aurre egin diezaieten laguntzeko. Bestalde, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak nazioarteko federazioentzako eskuliburu bat eskaintzen du, atletak babesteko politikak eta prozedurak sortzeko eta ezartzeko oinarri gisa erabili dadin.

Nahiz eta mundu osoko herrialde askotan kirol seguruaren ekimenei eskaintzen zaien arreta handiagoa izan, kirol seguruaren aurrerapena erronka handia izan da. Hala ere, ez dago kirol seguruaren definizio orokor eta onarturik, ezta kirol segurua ulertzeko eta sustatzeko esparrurik ere.

Kirol segururako esparru koherenterik ez badago, ondorioztatzen da kirol segurua sustatzeko politikak, programak eta jarduerak ere aldatu egingo direla. Kerr, Kidd eta Donnellyk (2020) kirol segururako eta atletak kaltetik babesteko nazioartean ezarri diren esku-hartzeen kritika egin zuten. Kirolarien aurkako tratu txarra arazo sistemikoa denez, eta gizabanakoarengandik hasi eta antolaketa- eta gizarte-mailetaraino hedatzen diren babeserako esku-hartzeak behar dituenek (Kerr et al., 2019), Bronfenbrennerren Sistema Bioekologikoen Teoria (1979) erabili zen teoriaren

⁴ <https://www.safesportinternational.com/opportunities/>

⁵ (<https://www.playbytherules.net.au/>)

maila bakoitzeko babes-estrategiak lantzeko. Maila indibidualean, kirolariak kiroleko segurtasunarekin lotutako gaien inguruan duten ezagutza handitzea eta kontzientziaztea sustatzen da hezkuntza-programen bidez. Mikrosistemaren mailan, jokabide-kodeak eta hezkuntza-programak prestatu dira alderdi interesdunentzat, hala nola entrenatzaileentzat eta gurasoentzat, kirolarien eta interesa duten beste alderdi batzuen arteko pertsonen arteko harremanak hobetzeko eta, horrela, inguruneko baldintzak hobetzeko. Mesosistemak erakundeek eta instituzioek kirolean interesa dutenen jokabidean eragin positiboa izateko duten zeregina du ardatz, eta atleten ongizate fisikoa eta psikologikoa babesten duten jazarpen- eta babes-politikak aplikatuz egin da. Exosistemari dagokionez, kirol segurua sustatzeko ardura eta konpromisoa duten erakundeen garapena azpimarratzen da; erakunde horietako bat da US Safe Sport. Azkenik, makrosistemaren maila –mundu osoan kirol segurua lortzeko ezartzen diren estatuko, nazioarteko eta tokiko politikak, legeak, erregelamenduak eta ideia soziokulturalak kontuan hartzen dituen– sustapen-ahaleginen bidez lortu nahi izan da, hala nola Nazioarteko Olinpiar Batzordearen Abusuari eta Jazarpenari buruzko Adostasun Adierazpenaren bidez (Mountjoy et al., 2016) eta horren alde egiten duen baliabidearen bidez (Nazioarteko Olinpiar Batzordea, 2017).

Kirol seguruan aurrera egiteko, hainbat gomendio eman dira. Adibidez, Noblek eta Vermillionek (2014, 52. or.) gazteen kirol-programetan proposatu zuten tratu txarrak prebenitzeko «administratzaileek eta agintariak kirolean parte hartzen duten gazteen segurtasunari lehentasuna ematen dieten politika eta prozedura zorrotzak egin eta aplikatu behar dituztela eta edozein motatako abusuzko portaerarekiko zero tolerantziako kultura sortu behar dutela». Gainera, Mountjoyk eta beste batzuek (2015, 885. or.) «kiroleko jokabide desagokiak eta bortitzak argi definitzea» gomendatu zuten, horrek kirolean babes egokiak hartzen lagundu baitiezaieke erakundeei. Kirol-erakundeek aplikatu behar dituzten babesei buruzko ikuspegi bateratuta edukitzeak ere berma dezake ahalegin koherenteak egingo direla jardun seguruei erantzuteko. Kirolean Haurrak Babesteko Fundatzaileen Nazioarteko Taldea 50 erakundek baino gehiagok osatzen dute, eta talde horrek Kiroleko Haurrentzako Nazioarteko Babesak garatu zituen. Babes horietan, kirolean parte hartzen duten haurrak edozein kaltetatik babesteko zortzi babes barne hartzen dira (Mountjoy et al., 2015): (1) politikak garatzea; (2) babes-arazoei erantzuteko prozedurak diseinatzea; (3) aholkularitza eta laguntza ematea; (4) haurrentzako arriskuak minimizatzea; (5) Kirolaren eta Bizitza Aktiboaren gidalerroak identifikatzea; (6) kide berriak biltzea, prestakuntza eta komunikazioa; (7) bazkideekin lan egitea eta (8) jarraipena eta

ebaluzioa. Hauxe da babesen helburua: «nazioarteko adierazpenak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, dagokion legeria, gobernu-orientazioak, haurren babesari/segurtasunari buruz dauden arauak eta jardunbide egokiak islatzea» (Rhind eta Owusu-Sekyere, 2018, 42. or.). Gainera, ikerketak erakundeen liderrekin etengabeko elkarrizketak eta eztabaida-taldeak ez ezik, Fundatzaileen Lantaldearen etengabeko atzeraelikadura ere barne hartu zuen, eta ikerketa horri esker, «CHILDREN» esparrua sortu zen; akronimo horrek sentsibilitate kulturala, holistikoa, pizgarriak, lidergoa, dinamikoa, baliabideak, alderdi interesdunen partaidetza eta sareak esan nahi du, eta kontuan hartu behar da nazioarteko babesak ezartzean (Mountjoy et al., 2015).

Kanadako Entrenatzaileen Elkarteak 2019an antolatu zuen kirol seguruari buruzko Goi Bilera Nazionalean, maila nazionaleko gaur egungo atletek eta atleta erretiratuak hainbat estrategia gomendatu zituzten kirol segurua sustatzeko. Gomendioen artean honako hauek zeuden: tratu txar mota guztiei ekitea (arreta bidegabeko sexu-jokabidean soilik jarri ordez); kirolean interesa duten alderdi guztientzat derrigorrezko hezkuntza diseinatzea eta ezartzea; atleten eta botere-posizioetan dauden pertsonen arteko (hala nola entrenatzaileak eta laguntzaileak) sexu-harreman eta intimitate-ekintza behartu guztiak debekatzea; atleten ongizate holistikoaren ikuspegia handitzea; kontuak emateko neurriak indartzea; tratu txarren biktimei laguntza eta baliabideak ematea; eta erakunde arautzaile independente bat ezartzea, kexak ikertzeko, erantzuteko eta esleitzeko eta zehapenak jartzeko (Kerr et al., 2020, 76. or.). Horrela, kirolean parte hartzen duten heldu guztien ardura da kirol segurua bermatzea (Brackenridge, 2001; Kerr et al., 2019), eta argudia daiteke kirol-administratzaileak oso eragin-posizio garrantzitsua dutela; izan ere, erakundearen eragiketen gaineko botere- eta autoritate-posizioak dituzte, funtsen esleipenak, langileen gaineko erabakiak, politiken eta prozeduren aplikazioa, emandako arriskuen kudeaketa eta legezko gaiak eta kontuak ematea barne. Gainera, kirol-administratzaileek eragin nabarmena dute erakundearen kulturari, balioak eta lehentasunak ematen baitituzte komunikazioen bidez, erabakiak hartuz eta politikak aplikatuz.

Europako testuingurua ardatz hartuta, Europako Batzordeak (2019) adingabeen aurkako sexu-abusuak prebenitzeko abian jarritako proiektu ugari erakutsi zituen; guztien artean Start To Talk Initiative proiektua nabarmendu behar da. Aldazek (2020) egindako ikerketa kontuan hartuta, beste proiektu batzuk ere badaude, hala nola:

- ✓ «Prevention of sexualised violence in sports – Impulses for an open, secure and sound sporting environment in Europe»

- ✓ VOICE
- ✓ Sport Respect Your Rights
- ✓ Safeguarding Youth Sport
- ✓ Leveraging sport to tackle gender inequalities
- ✓ I-Protect in sport
- ✓ Sport Against Violence and Exclusion (SAVE)
- ✓ Child Abuse in Sport: European Statistics CASES
- ✓ POINTS Project
- ✓ SPORTPARENT EU Project
- ✓ iCoachKids
- ✓ Get Addicted to Sport Values

6.3. Babes-politikak

Rhind eta Owusuren arabera (2018), hainbat bilera eta eztabaidatan emaitza desberdinak lortu ondoren, kirol-erakunde guztiek bermatu behar dituzten zortzi babes zehaztu ziren azkenean, adingabeek kirol-ingurune seguruak izan ditzaten:

- a) Hautemate- edo zalantza-kasuetan erantzuteko prozedura garatzea. Prozesuak adieraziko dituzte, eta rola eta erantzukizunak argituko dituzte, baita komunikazio-ildoak ere. Edozein kexa edo kezka prozesatzen lagunduko duten eta indarkeriaren biktimei lagunduko dieten sistema eraginkorrak behar dira.
- b) Aholkularitza eta babesa. Adingabea babesteko behar den funtsezko laguntza antolatzen du erakundeak, eta adingabeei jakinarazten die nora joan behar duten laguntza eta babesa jasotzeko.
- c) Adingabearentzako arriskua gutxitzea. Adingabeentzako arriskuak ebaluatzeko eta gutxitzeko neurriak garatzea.
- d) Jokabide-gidak egitea. Jokabide-estandar onargarri bat zer den deskribatzeko eta egungo jardunbide egokiak sustatzeko.
- e) Kontratazioa, Prestakuntza eta Komunikazioa. Pertsona egokiak kontratatzea, babesaren inguruan beharrezkoak diren trebetasunak eta komunikazioa garatzeko eta mantentzeko aukerak sortuz.


- f) Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. Erakundeak egiten dituen ekintzak, erakunde elkartuek adingabeak babesteko neurriak har eta ezar ditzaten eragiteko eta sustatzeko.
- g) Monitorizazioa eta ebaluazioa. Betetzearen eta eraginkortasunaren etengabeko monitorizazioa, talde garrantzitsu guztiek esku hartzen dutela.

Kirolean haurrak babesteari buruz egindako ikerketek erakutsi dute neurri horiek aplikatzea zailtzen duten oztopoak daudela, adibidez, baliabiderik eza, beldurra eta zailtasun administratiboak (Malkin, Johnston, y Brackenridge, 2000). Azterlanetan adierazi da, halaber, haurrak babesteko politikan hutsune bat dagoela kirol-federazioen eta tokiko klub afiliatuen artean (Brackenridge, 2002; Bringer, Brackenridge, y Johnston, 2002). Ildo horretan, goi-mailako erakundeek haurrak babesteko aplikatzen dituzten neurriak oso gutxitan iristen dira beheagoko mailako erakundeetara. Fasting, Brackenridge, y Sundgot-Borgen (2004)ek egindako azterlanean, kirolarien babesari buruz interesa zuten alderdien pertzepzioak aztertu ziren. Egile horiek lortutako emaitzen arabera, kirolariak, gurasoak eta entrenatzaileak ez zeuden ondo informatuta beren kirol-erakundeetan zeuden babes-neurriei buruz. Aitzitik, administratzaileak neurri horien inguruan informatuta zeudela zirudien, baina arazo administratibo ugari izan zituzten neurri horiek aurrera eramateko, hala nola atzerapen luzeak aurrekari penalak egiaztatzeke edo entrenatzaile arau-hausleei buruzko informazioa kirol-erakundeen artean partekatzeke zailtasuna.

Brackenridgek (2002; 2006; 2004)) prebentzioa gauzatzeko zailtasuna kirol-erakundeetako goiburuzagien inertziari eta prebentzioa onuratzat baino gehiago zamatzat jotzeari egozten die. Baliabiderik eta gaitasunik ez izateak kirol-erakundeek sexu-abusuari dagokionez izandako esku-hartzeetan eta ekintzetan ere eragiten zuela zirudien; hori beste ikerketa batzuetan ere ikusi da (Bringer, Brackenridge, y Johnston, 2002). Parent y Demers (2011)ek egindako azterlanak, kirol-erakundeetan sexu-abusuak prebenitzeko erabilitako neurriak eta neurri horien eraginpean daudenen pertzepzioak (gurasoak, kirolariak, administratzaileak eta entrenatzaileak) aztertzen dituenak, sentimendu horiek daudela egiaztatzen du. Hala, ikus daitekeenez, kirol-eremuko antolatzaileek adierazi dute ez zutela inoiz arlo horretako prestakuntzarik jaso, eta, beraz, ez zirela gai sentitzen, eta horrek eragin handia zuela beren lidergoan gai horri zegokionez. Gainera, uste zuten ez zeukatela baliabide ekonomiko, denbora edo langile nahikorik beren ahaleginak gai horri eskaintzeko. Horrez gain, ikusi zen, baliabiderik eta ezagutzarik ez izatearen ondorioz, erakundeak ez zirela oso aktiboak eta ez zutela lidergo sendorik arlo horretan. Eragin hori gehiago

nabaritu zen tokiko klubetan federazioetan baino, lehenengoen baliabideak mugatuagoak baitira.

2. irudian, sexu-jazarpena prebenitzeko kirol-antolaketaren eredu bat ikus daiteke.



2. irudia. Kirol-eremuan sexu-abusua prebenitzeko eredua.

6.4. Arriskuak murriztea kirol-erakundeek erabiltzen dituzten prebentzio-politiken bidez

Prebentzio-estrategien artean, jardunbide egokien kodeei, hezkuntzari eta prestakuntzari, laguntza- eta salaketa-mekanismoei eta kontrol-sistemei lotutako politikak daude (Nazioarteko Olinpiar Batzordea, 2006). Desberdintasun kulturalak alde batera utzita, kirol-erakunde bakoitzak xedapen horiek guztiak ezarri beharko lituzke. Politika asmo-adierazpen bat da, guztiontzako ingurune seguru eta errespetuzkoa sortzeko konpromisoa erakusten duena; beraz, eskubideak, ongizatea eta babesa sustatzeari dagokionez, baldintzak zeintzuk diren ezarri beharko luke. Era berean, erakundeari aukera ematen dio salaketa edo akusazio baten aurrean berehala, modu inpartzialean eta bidezkoan esku hartzeko, baita diziiplina-neurriak, neurri penalak eta

bestelakoak hartzeko ere, zer dagokion. Jardunbide egokien kodeek portaera-irizpide onargarriak definitzen dituzte, eta irizpide horiek jarraituz gero, politika ezartzeko balio izango dute. Portaera-irizpideek onargarria denaren edo ez denaren parametro zehatza ezartzen dute, eta sexu-jazarpenerako eta sexu-abusurako aukerak eta oinarririk gabeko akusazioak gutxitzen lagundu dezakete (Suecia et al., 2008).

Nazioarteko Olinpiar Batzordeari (2006) eta hainbat egileri jarraikiz, esate baterako, Suecia et al. (2008), adieraz dezakegu kirol-erakunde guztiek honako ekintza hauek egin beharko lituzketela:

- a) Kirol segururako politika eta prozedura hauek aplikatu eta gainbegiratzea: kirolari guztiek errespetuzko tratua jasotzeko eta nahitako indarkeriatik babestuta egoteko eskubidea dutela ezartzen dutenak; kirolarien ongizatea funtsezkoa dela adierazten dutenak; aplikatzeko erantzukizuna nori duen identifikatzen dutenak; arau-haustea zer den eta arau-haustek dakartzan ondorioak zehazten dituztenak; erantzun-sistema bat zehazten dutenak eta esku hartzen duten alderdi guztientzat aholkularitza eta laguntza non bilatu behar den jakiteko xehetasunak ematen dituztenak.
- b) Alderdi interesdun guztientzako prestakuntza-programa bat ematea, kirolarien aurkako nahitako indarkeriaren prebentzioaren alderdi praktikoetan parte hartzeko moduari buruz.
- c) Kirol seguruaren programazioaz eta kirolarien ongizateaz arduratuko diren langile kualifikatuak eta hautatuak izendatu edo horiekin lan egitea.
- d) Kirolariek esateko dutena entzutea beren babesari buruzko erabakiak hartzeko garaian.
- e) Kirolarien guraso eta zaintzaileekin elkarlan sendoa sustatzea, kirol segurua bultzatzeko.
- f) Aditu taldeekin eta alderdi interesdunekin elkartzea, diziplina anitzeko eta erakunde anitzeko ikuspegi sistematikoari jarraitzeko. Horren barnean legearen aplikazioa, komunikabideak, medikuak, haurren babesa, aholkularitza eta babesa edo beste talde batzuk sar daitezke.

Kirolean sexu-jazarpenera eta -abusua prebenitzen badira, kirola ingurune seguruagoa, osasungarriagoa eta positiboagoa izango da guztiontzat. Haurrak artatzen dituzten erakundeetan, kirol-klubetan, adibidez, salaketa-sistemak izatea, beraz, garrantzitsua da haurrak eta gazteak babesteko. Hori islatu da duela gutxi egindako Kirol-arloko Haurrentzako Nazioarteko Babesetan; izan ere, bertan adierazten denez, salaketa-prozedurek «haur baten

segurtasunarekiko edo ongizatearekiko kezkari erantzun azkarra ematen laguntzen dute» (Kirol-arloko Haurrentzako Nazioarteko Babesak).

6.5. Kirol-kluben konpromisoa kirolariak babesteko

Sexu-indarkeriaren prebentzioak haurrak babesteko politika global baten elementu integrala izan behar du; hala ere, sexu-abusuari erakundeetan eman zaion arreta azken urteetan soilik garatu da (Witte et al., 2019). Haurrak babestea eta tratu txarrik ez ematea dira arlo horretako politika guztien helburu orokorrak, baina, oro har, ikerketa gutxi egin dira prebenitzeko eta esku hartzeko jardueren efikaziari buruz (Merkel-Holguin et al., 2019; Witte et al., 2019). Beraz, esparru horretan egindako lanaren zati handi batek onartzen du erakundeetan haurrak babesteko egiten diren jarduerak benetan babesten dituztela babesak behar duten haurrak, eta prebentzio-neurriek eragina dutela langileek arazoari buruz duten ezagutzan eta sentsibilizazioan (Rulofs eta Wagner, 2018).

Haurrak babesteko politikak kirol-erakundeetan ezartzeari buruz ikerketa gutxi dago (Brackenridge et al., 2005). Arlo horretan egindako azterlan nabarmenetako bat (Hartill eta Lang, 2014) Ingalaterrako Futbol Elkartean haurrak babesteko erabiltzen ziren politikak gainbegiratzean oinarritu zen, eta erakundeetan kultura aldatzeko teorietan oinarritutako azterlan kualitatibo baten bidez egin zen. Egileek aktibazio-egoeren eredu bat prestatu zuten, haurren babesak kirol-erakundeetan duen eragina neurtzeko. Eredu hori bost egoeratan oinarritzen da: «kontrakoa» (kritikoa eta haurren babesaren aurkakoa), «ez-aktiboa» (haurren babesari buruzko ezagutzarik eta konpromisorik ez duena), «erreaktiboa» (konpromisoa hartzeko eta parte hartzeko errezeloa duena), «aktiboa» (ezagutza eta inplikazio egokiak) eta «proaktiboa» (erabateko konpromisoa eta babesak). Emaitzek erakusten dutenez, kirol-erakundeetan ez da haurren babesak sartu nahi izaten. Eredu horretako beste azterlan batzuek ere berretsi dute kirol-erakundeek errezeloa izaten dutela haurrak babesteko jarduerak ezartzeko.

Gaur egun, eta Euskal Autonomia Erkidegoa ardatz hartuta, klub bakar batek du, Bera Bera taldeak, jazarpenaren aurkako protokoloa taldekideen segurtasuna bermatu ahal izateko. Bertan adierazten denez, protokolo horren aplikazioak Administrazioa eta Zerbitzuetako langileak (entrenatzaileak eta begiraleak, esaterako) eta kirolariak barne hartzen ditu; hala ere, ez dago kirolariak babesteko prebentzio-politikarik.

Arestian aipatutako lanaren 18.etik 25.era bitarteko orrialdeetan dagoen atala (https://bideoak2.euskadi.eus/2019/03/25/news_52918/KirolIndar_eus.pdf) interesgarria izan daiteke azterketari eta gomendioei buruzko eskema bat eratzeko. Lehen mailako (aurretiko sozializazioa), bigarren mailako (egoeraren arabekoak) eta hirugarren mailako (benetako zehapenak) prebentzio-mekanismoen azterketa baliagarria izan daiteke.

6.6. Erreferentziak

Aldaz, J. (2020). Cuando el sueño de ser deportista de élite se puede convertir en pesadilla. In *Cuando el sueño de ser deportista de élite se puede convertir en pesadilla. Análisis crítico de las violencias en torno a los menores deportistas en itinerarios de alto rendimiento y de los mecanismos existentes para su protección.* (695.-742. or.).

Brackenridge, C. (2001). *Spoilsports: Understanding and Preventing Sexual Exploitation in Sport.* Londres: Routledge Publ.

Brackenridge, C. (2002). Spoilsports (understanding and preventing sexual exploitation in sport): *British Journal of Sports Medicine, 36*(4), 311–311. <https://doi.org/10.1136/bjism.36.4.311>

Bringer, J. D., Brackenridge, C. H., eta Johnston, L. H. (2002). Defining appropriateness in coach-athlete sexual relationships: The voice of coaches. *Journal of Sexual Aggression, 8*(2), 83–98. <https://doi.org/10.1080/13552600208413341>

Bringer, J. D., Brackenridge, C. H., eta Johnston, L. H. (2002). Defining appropriateness in coach-athlete sexual relationships: The voice of coaches. *Journal of Sexual Aggression, 8*(2), 83–98. <https://doi.org/10.1080/13552600208413341>

Bronfenbrenner, U. (1979). *The Ecology of Human Development.* Cambridge, MA: Harvard University Press

Cense, M., eta Brackenridge, C. (2001). Temporal and Developmental Risk Factors for Sexual Harassment and Abuse in Sport. *European Physical Education Review, 7*(1), 61–79. <https://doi.org/10.1177/1356336X010071006>

Coaching Association of Canada (2020). *Safe Sport Training.* Available online at: <https://safesport.coach.ca/> (accessed October 1, 2020).

Fasting, K., Brackenridge, C., eta Sundgot-Borgen, J. (2004a). Prevalence of sexual harassment

- among norwegian female elite athletes inrelation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 39(4), 373–386. <https://doi.org/10.1177/1012690204049804>
- Fasting, K., Brackenridge, C., eta Sundgot-Borgen, J. (2004b). Prevalence of sexual harassment among norwegian female elite athletes inrelation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 39(4), 373–386. <https://doi.org/10.1177/1012690204049804>
- International Olympic Committee (2017). Safeguarding Athletes From Harassment and Abuse in Sport.
- Kerr, G., Battaglia, A., eta Stirling, A. (2019). Maltreatment in youthsport: a systemic issue. *Kinesiol. Rev.*8, 237–243. doi: 10.1123/kr.2019-0016
- Kerr, G., Kidd, B., eta Donnelly, P. (2020). One step forward, two steps back:the struggle for child protection in Canadian sport. *Soc. Sci.*9, 68–83. doi: 10.3390/socsci9050068Kerr.
- Kerr, R., eta Kerr, G. (2020). Promoting athlete welfare: a proposal foran international surveillance system. *Sport Manag. Rev.*23, 95–103. doi: 10,1016/j.smr.2019.05.005
- Lang, M., eta Hartill, M. (Ed.). (2014). *Safeguarding, Child Protection and Abuse in Sport: International Perspectives in Research, Policy and Practice (1st ed.)*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203628515>
- London, K., Bruck, M., Wright, D. B., eta Ceci, S. J. (2008). Review of the contemporary literature on how children report sexual abuse to others: Findings, methodological issues, and implications for forensic interviewers. *Memory*, 16(1), 29–47. <https://doi.org/10.1080/09658210701725732>
- Malkin, K., Johnston, L., eta Brackenridge, C. (2000). A critical evaluation of training needs for child protection in UK sport. *Managing Leisure*, 5(3), 151–160. <https://doi.org/10.1080/13606710050084847>
- Mountjoy, M., Brackenridge, C., Arrington, M., Blauwet, C., Carska-Sheppard, A., Fasting, K., eta Budgett, R. (2016). International Olympic Committee consensus statement: Harassment and abuse (non-accidental violence) in sport. *British Journal of Sports Medicine*, 50(17), 1019–1029. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2016-096121>
- Mountjoy, M., Rhind, D. J. A., Tiivas, A., eta Leglise, M. (2015). Safeguardingthe child athlete in sport: a review, a framework, and recommendations forthe IOC youth athlete development

- model.Br. J. Sports Med.49, 883–886.doi: 10.1136/bjsports-2015-094619.
- National Society for the Prevention of Cruelty to Children (2020).*Safeguarding Children and Child Protection*.
- Noble, J., eta Vermillion, M. (2014). Youth sports administrators' perceptions and knowledge or organizational policies on child maltreatment.*Child. Youth Serv.Rev.*38, 52–57. doi: 10,1016/j.chilyouth.2014.01.011
- Parent, S., eta Demers, G. (2011). Sexual abuse in sport: A model to prevent and protect athletes. *Child Abuse Review*, 20(2), 120–133. <https://doi.org/10.1002/car.1135>
- Play by the Rules (2020).Child Safe Sport.Available online at: <https://www.playbytherules.net.au/got-an-issue/child-safe-sport> (accessed October 1,2020).
- Rhind, D., eta Owusu-Sekyere, F. (2018). «*The international safeguards,*» in*International Safeguards for Children in Sport: Developing and Embedding aSafeguarding Culture*, eds D. Rhind and F. Owusus-Sekyere (Routledge), 42–54.
- Safe Sport International (2019). Abuse of Athletes Happens. Availableonline at: <http://www.safesportinternational.com/> (accessed October1, 2020)
- Stafford, A., Alexander, K., eta Fry, D. (2015). 'There was something that wasn't right because that was the only place I ever got treated like that': Children and young people's experiences of emotional harm in sport. *Childhood*, 22(1), 121–137. <https://doi.org/10.1177/0907568213505625>
- Suecia, A. L., Médica, C., Canadá, M. M., Brackenridge, C., Unido, R., Ciencias, D., eta Canadá, S. K. (2008). Acoso y abuso sexuales en el deporte . *Apunts Educació Física i Esports*, 158, 88–93.
- The International Olympic Committee (2020). IOC Safe Sport Initiatives: Overview.
- U.S. Center for SafeSport (2020).U.S. Center for Safesport.Available onlineat: <https://uscenterforsafesport.org/>.

7.- EPILOGOA

7. EPILOGOA

7.1. Ondorio nagusiak

Kirol-hastapenari buruzko argitalpen zientifikoaren gaineko azterketa egokia egin ostean, ondorio nagusi hauek nabarmendu behar ditugu:

Sexu-jazarpena eta sexu-abusua sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-modalitateak dira, eta, gainera, «osotasun fisiko eta moralerako» oinarrizko eskubidea ere urratzen dute (Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua). Halaber, «nortasunaren duintasunaren eta garapenaren» aurkako atentatua dira; horiek, eskubide ukiezinekin eta nortasunaren hazkunde librea, legea eta besteekiko eskubideak errespetatzearekin batera, «ordena politikoa eta bake sozialaren oinarriak dira» (Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua). Sexu-jazarpenak eta -abusuak esperientzia traumatikoak dira, eta ondorio kaltegarriak eragiten dituzte haiek pairatzen dituztenen nortasunaren garapen egokian eta egoera fisiko eta psikologikoan, batez ere biktimak adingabeak edo desgaitasunak dituztenak badira. Sexu-jazarpenak eta -abusuak gertatzen dira kirolaren eremuan eta kirola egiten den zentroetan ere. Kontuan izan behar da kirolaren alorreko profesionalen eta kirola egiten duten pertsonen arteko harremanak bertikalak direla, hau da, profesionalak botere eta autoritate handiagoak izatean oinarritutako desberdintasuna dakartela. Harreman asimetriko horiek modu positiboan erabil daitezke, mugak ezartzeko, disziplina eta errespetua irakasteko eta segurtasuna emateko, edo, modu negatiboan, pertsonaren garapenerako arrisku larria dakarten jokabideak (tratu txarrak eta abusuak, adibidez) egitera behartzeko. Kontuan hartu behar da, halaber, kirolarien artean sexu-jazarpenak eta -abusuak gerta daitezkeela. Kirolarien eta horien ingurunearen arteko bizikidetzaren baldintzek berezitasun batzuk dakartzate, eta berezitasun horiei arreta berezia eskaini behar zaie, bereziki goi-mailako lehiaketako kirolean; izan ere, mota horretako kirolean, entrenamendu-ordutegi trinkoak bete behar dira nahitaez eta egonaldi eta kontzentrazio ugari partekatu behar dira, baita joan-etorriak eta bidaiak ere. Gainera, goi-mailako lehiaketan, prestaketa eta kirol-instalazioak eta kalitatezko beste baliabide batzuk eskura izateko, ohikoa da kirolariak egoitza espezializatuetan ostatu hartzea barnealdi luzetarako, baita ikasturtean zehar ere.

Sexu-jazarpenak eta -abusuak aurrera egiten dute diskriminazioarekiko, indarkeriarekiko eta sexu-portaera desagokiarekiko tolerantzia dagoenean. Botere-harremanak desorekatuak direnean, lidergo autoritarioak eta sari-egiturek beldurrean eta mendekotasunean oinarritutako

harremanak sortzen dituzte, eta, beraz, kirolariaren kalteberatasuna areagotu egiten da nagusikeria horren aurrean. Behar den kontaktu fisikoaren eta aldageletan eta leku itxietan helduekin partekatzearen ondorioz, galdu egiten dira «hesi naturalak», eta horrek ere hainbat motatako sexu-indarkeriaren eraginpean jartzen ditu kirolariak. Kirola errespetuzko giroan egin beharko litzateke, giza eskubideak eta, bereziki, haurrak eta nerabeak babestea eta genero-identitate guztientzako berdintasun-gune izatea oinarri hartuta.

Kirolean sexu-jazarpena eta -abusua prebenitzeko modurik eraginkorrena da esku hartzen duten eragile guztiek taldean lan egiteko ardua eta konpromisoa hartzea, kirolarientzako ingurune osasungarria eta babesgarria bermatzeko. Ildo horretan, funtsezkoa da informazio eskuragarri eta eguneratua izatea, baita arrisku-egoeretan edo, izatezko egoeretan nola jokatu behar den jakiteko prozedura argiak izatea ere. Baina benetako aldaketa gure kirol-kulturan errotuta dauden gehiegizko konnotazioen jarduerak, prozedurak, jarduketak, moduak eta portaerak aztertzea lortzen dugunean gertatuko da, edozein roletan (kirolariak, irakasleak, laguntzaileak, ikusleak, familiak, agintariak, kazetariak), era batera edo bestera kirol-eremuari lotuta gauden guztion konpromisoaren eta koordinazioaren ondorio gisa.

7.2. Gomendioak

7.2.1. Administrazio Publikoa

- ✓ Eskubideak, ongizatea eta babesa sustatzeari buruzko baldintzak zeintzuk diren ezarri beharko luke. Horri esker, administrazio publiko horren mendeko kirol-erakundeek salaketa edo akusazio baten aurrean berehala, modu inpartzialean eta bidezkoan esku hartu ahal izango dute, baita diziiplina-neurriak, neurri penalak eta bestelakoak hartu ere, zer dagokion. Jardunbide egokien kodeek portaera-irizpide onargarriak definitzen dituzte, eta irizpide horiek jarraituz gero, politika ezartzeko balio izango dute. Portaera-irizpideek onargarria denaren edo ez denaren parametro zehatza ezartzen dute, eta sexu-jazarpenerako eta sexu-abusurako aukerak eta oinarririk gabeko akusazioak gutxitzen lagundu dezakete.
- ✓ Kirol segururako politika eta prozedura hauek aplikatu eta gainbegiratzea: kirolari guztiek errespetuzko tratua jasotzeko eta nahitako indarkeriatik babestuta egoteko eskubidea dutela ezartzen dutenak; kirolarien ongizatea lehentasunezkoa dela adierazten dutenak; aplikatzeko erantzukizuna nork duen identifikatzen dutenak; arau-haustea zer den eta arau-haustek dakartzan ondorioak zehazten dituztenak; erantzun-sistema bat zehazten

dutenak kirolarien/salaketaren egileen kezka eta kezka artatzeko, jakinarazpen-, barkamen- eta ebazpen-mekanismo neutralekin; eta salaketa edo barkamen batean esku hartzen duten alderdi guztientzat aholkularitza eta laguntza non bilatu behar den jakiteko xehetasunak ematen dituztenak.

- ✓ Alderdi interesdun guztientzako prestakuntza-programa bat ematea, kirolarien aurkako nahitako indarkeriaren prebentzioaren alderdi praktikoetan parte hartzeko moduari buruz.
- ✓ Kirol seguruaren programazioaz eta kirolarien ongizateaz arduratuko diren langile kualifikatuak eta hautatuak izendatu edo horiekin lan egitea.
- ✓ Kirolariek esateko dutena entzutea beren babesari buruzko erabakiak hartzeko garaian.
- ✓ Kirolarien guraso eta zaintzaileekin elkarlan sendoa sustatzea, kirol seguruia sustatzeko.
- ✓ Aritu taldeekin eta alderdi interesdunekin elkartzea, diziplina anitzeko eta erakunde anitzeko ikuspegi sistematikoari jarraitzeko. Horren barnean legearen aplikazioa, komunikabideak, medikuak, haurren babesa, aholkularitza eta babesa edo beste talde batzuk sar daitezke.
- ✓ Federazioetan eta klubetan benetako berdintasuna bermatuko duen kode etikoa ezartzea. Jokabide onargarrien eta onartezinen arteko mugak ezartzea, ohiturak ohituta.
- ✓ Sexualitateari buruzko gaien inguruko prestakuntza ematea kirolariei, alderdi hauek barne hartuta: beren gorputza kontrolatzeko eskubidea; sexu-harremanen onarpenari eta praktika motei dagokienez mugak jartzen ikastea; sexu-jazarpena eta -abusua identifikatzea; baita entrenatzailearen eta kirolariaren arteko sexu-harremanetan eragina duten alderdiak eta kirolariaren kirol-bizitzan duten eragina identifikatzea ere.
- ✓ Politika horiek sexu-jazarpenaren eta -abusuaren identifikazioan eta murrizketan duten eragina ebaluatzea.
- ✓ Kiroleko sexu-jazarpenaren eta -abusuaren alorreko ikerketa sustatzea eta ikerketa egiten laguntzea.

7.2.2. Kirol-klubak

- ✓ Entrenatzaileentzako etika- eta jokabide-kodeak diseinatu eta ezartzea. Entrenatzaileek sinatu eta ontzat eman beharko dituzte lanpostua lortzen dutenean, bai hurrekin lan egiten badute, bai emakumezko edo gizonezko helduekin lan egiten badute. Kodeek argi eta garbi azaldu behar dute zer den kirolarien eta haurren gurasoak ez diren helduen arteko kontaktu fisiko egokia eta desagokoa. Kirolariek edo langile nahiz boluntario

helduek egindako hasiberriarenak (iniziazio-errituak), eta jazarpena, edozein motatakoa, erabat debekatu behar dira.

- ✓ Jarduketa ez ezik, prebentzioa ere ekarriko duten jazarpen-protokoloak diseinatu edo ezartzea.
- ✓ Entrenatzaileei sexu-jazarpenari eta -abusuari buruzko prestakuntza ematea. Abusua prebenitzeari buruzko gaikuntza formala.
- ✓ Erakundeko kide diren helduek trebakuntza izan behar dute kirol-giroan abusu psikologiko, fisiko edo sexualaren seinaleak antzemateko. Programan parte hartzen duten entrenatzaileek eta gainerako helduek kirolari gazteen entrenamenduko eta zuzendaritza teknikoko jarduera positibo eta eraginkorrei buruzko baliabideak eskuratu behar dituzte. Trebakuntza egokiak honako hauen artean dagoen aldea bereizten lagun diezaieke entrenatzaileei:
 - Intentsitate handiko entrenamendu-metodoen eta abusu fisikoa osatzen duten metodoen artekoa.
 - Komunikatzeko estrategien eta haurrei hitz egiteko moduen artekoa, baldin eta modu horiek jazarpena edo xaxatzea (fisikoki, bai sare sozialen bidez) badira.
- ✓ Talde teknikoak mistoak izango direla bermatzea; gizonez eta emakumeez osatutako taldeak izatea: «sexu-jazarpenaren prebalentzia txikiagoa da kirol-inguruneetan emakume eta gizon kopuru berdina dagoenean»
- ✓ Sexu-jazarpenarekin eta sexu-abusuarekin lotutako gaiei buruzko hausnarketa eta elkarrizketa irekirako giroa sustatzea, kirolariek gai horri buruz hitz egiteko edo horren inguruan dituzten zalantzak azaltzeko konfiantza izan dezaten.
- ✓ Kirolari adingabeak kontzentrazioetara edo lehiaketetara bidaiatzen badira, bidaiaplanari, egonaldiari, entrenamenduei eta lehiaketari buruzko informazioa eman beharko zaie gurasoei edo tutoreei. Halaber, kirolariek harremanetan jarri ahal izateko ordutegiak ezarriko dira.
- ✓ Familiarekin lankidetzagiroa sustatzea, nolabaiteko hurbiltasuna egon dadin mota horretako egoerei elkarrekin ekin ahal izateko.
- ✓ Jokoetan, norgehiagoketan edo bestelako kirol-ekitaldietan oinarritutako bidaiari buruzko politika idatziak egongo dira nahitaez: kirolariek ez dute bakarrik bidaiatu behar gurasoetako bat ez den heldu batekin; beharrezkoa da gurasoei bidaiaplan xehatuak ematea gaua etxetik kanpo igarotzea eskatzen duen bidaiari bat egin aurretik; kirolariek

bidaietan «lagunen sistema» erabili behar dute (lagun baten bikote izatea/lagun batek lagun egitea) jarduera guztietan.

- ✓ Erakundeek honako hauek egiteko aukera emango duten politikak eta prozedurak izan behar dituzte: gazte kirolariak eta haien gurasoek jokabide susmagarriak salatzea ekintza azkarra eta jarraipen egokia bermatzeko ezarritako prozedurak erabiliz. Langileen eta boluntarioen jokabide desegokiak nahitaz salatzea. Adingabeei egindako abusuen edo zabarkeriaren inguruko arrazoizko salaketa edo susmo guztiak salatzea ordena publikoko tokiko agintarien aurrean.
- ✓ Sexu-izaerako delituen ziurtagiri negatiboa eskatzea. Ziurtagiri hori derrigorrezkoa da Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatu zuen Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak ezartzen duenaren arabera.
- ✓ Langileak kontratatzeako aurrebaldintzak baloratzea eta 19.791 zenbakiko Legean eskatzen direnak kontuan hartzea: Neurri horrekin ziurtatuko da kirolaren arloan lan egiten dutenek eginkizuna betetzeko profilik egokiena izatea.
- ✓ Informazio eskuragarria: Kirolarekin lotura duten eragile guztiei informazioa eskuratzea bermatuko dieten mekanismoak sortzea, batez ere kirolariak eta haien familiak aintzat hartuta. Jazarpenaren/abusuaren kasuan jarduteko protokolo bat prestatzea eta laguntza eskatzeko erreferentziako arduradun bat esleitzea.

7.2.3. Gurasoak eta ahaideak

- ✓ Kirolariaren hurbileko familia-inguruneak rol garrantzitsua du prebentzioari, hautemateari eta babesari dagokienez. Garrantzitsua da kirolarien adierazpenei eta portaerei erantzutea, baldin eta horiek kezka edo zalantzak sortzen badituzte eta arreta edo jarraipena behar badute. Aitak/amak eta inguruneko beste heldu batzuk haurren babesaren eta hezkuntzaren lehen lerroan daude. Entzute aktiboa egiteaz gain, bestearen errespetua sustatu behar dute eta zalantzarik izanez gero nola jokatu jakin behar dute. Era berean, kirolaria babesteko beharrezkoak diren neurriak eskatu behar dizkiete kirol-egituren eta -jardueren arduradunei. Kirolariaren familia-ingurunearen eta kirol-ingurunearen artean harreman positiboa ezartzeko bideak aurkitu behar dira.
- ✓ Sexu-abusuak prebenitzearen inguruan prestatu behar da eta horri buruzko informazioa bildu. Zer den, zer arrisku-faktore dituen, zer ondorio dituen eta balizko prebentzio-protokoloen funtzionamendua zein den jakinda.

- ✓ Hezkuntza afektibo eta sexual egokia ematea; dituzten zalantzak entzutea eta dituzten galderei erraz eta lasai erantzutea. Seme-alabak gai horretarako prestatzea.
- ✓ Seme-alabei sexu-abusua detektatzeko eta hortik babesteko trebetasunak eta tresnak erakustea, jokabide egokiak identifikatzen ikastea, maitasun-adierazpen bat noiz den edo abusu bat noiz den bereizten jakitea.
- ✓ Haurrei ezetz esaten irakatsi behar zaie, baita nork bere gorputza eta besteena zaindu eta errespetatzeari balioa ematen, eta norbaitek abusu-ekintza bat egin duenean adierazten ere.

7.3. Aztertutako lanen mugak eta gabeziak

Ikerketa guztiekin gertatzen den bezala, nazioartean eragin handia duten aldizkarietan argitaratzen badira ere, muga eta gabezia batzuk daude. Hauexek dira:

- ✓ Kiroleko sexu-jazarpenaren eta -abusuaren hainbat atalen inguruan aurrera eramandako nazioarteko ikerketa zientifikoak era askotako testuinguruetan egin dira. Herrialde bakoitzak bere kirol-ereduari buruzko ikerketa propioak ditu, prebenitzeko egiten dituzten hautaketak edo programak, baita kirol-hastapeneko programa propio bat ere. Horiek guztiek hainbat desberdintasun izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta.
Beraz, programa horien eraginak eta esanahiak aztertzen dituzten ikerketen emaitzak alderatzea eta emaitza horiek EAEra ekartzea muga bat izan daitezke. Gabezia horri erantzuteko modurik onena hautatutako azterlanak erreferentziatzat hartzea izango litzateke, eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bertan egin ondoren lortutako emaitzak egungo lanetan dagoen ebidentzia zientifikoarekin bat datozen ala ez ikustea.
- ✓ Lan teorikoak eta atzera begirako azterlanak dira nagusi. Mota horretako ikerketa interesgarria izan arren, azpimarratu behar da azterketa enpiriko gutxi daudela. Hau da, epe luzera begira egindako oso prospekzio-azterlan gutxi aurkitu dira. Interesgarria izango litzateke aztertu ahal izatea zer ondorio dituen kirol-eremuan adin goiztiarretan (haurrak eta gazteak) sexu-jazarpena eta -abusua prebenitzeko sistema eraginkor bat abian jartzeak.
- ✓ Nahiz eta hainbat azterlan dauden eta gehienetan ondorio bateratuak dauden, ikerketa-corpus handiagoa behar da prebentzio-programa baten faktoreak, ondorioak eta onurak aztertzeke.

- ✓ Aztertutako ikerketa batzuen lagina txikia denez, horien emaitzak ezin dira edonola orokortu. Lagin handiagoa duten azterlanek indartu egingo lituzkete lortutako emaitzak.
- ✓ Parte-hartzaileei dagokienez, adin-tarte desberdinak ezartzeak zaildu egiten du azterlanen arteko alderaketa egitea. Gainera, oso ikerketa gutxitan lantzen da eremu hori haurren eta gazteen artean.
- ✓ Ikerketa gehienak beste herrialde batzuetan egin ziren, kontuan hartu behar diren desberdintasun soziokultural guztiekin.